



KULTURAREN SUSTAPENA

2

+c

k+

kulturaz hazi
consuma cultura

2

1. **Sarrera**

1.1. Kulturaren Sustapena

1.2. Jarduera-ildoen eskema

1.3. Aurrekontua eta laburpen-taulak

2. **Jarduera-ildoak**

2.1. Jarduera transbertsaleko ildoak

2.1.1. Sorkuntza lantegiak

2.1.2. Kultura Bultzatuz

2.1.3. Kultura 2.0.

2.1.4. Kulturklik

2.1.5. Kulturen aldeko Herritar Kontratua

2.1.6. Kulturaren Euskal Behatokia

2.1.7. Kultura Bona

2.1.8. 2012: Bakearen eta Askatasunaren aldeko Kulturen Urtea

2.1.9. Euskal Kulturaren kanporako proiektzioa

2.2. Sektorekako jarduera-ildoak

2.2.1. Ikus-entzunezkoa

2.2.2. Liburua

2.2.3. Antzerkia

2.2.4. Dantza

2.2.5. Musika

2.2.6. Ikusmeneko arteak

2.3. Lurraldekako jarduera-ildoak

3. **Etorkizuneko erronkak**



1. Sarrera

1.1. Kulturaren Sustapena

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak euskal kulturaren eta artearen alor desberdinetako formazioa, sorkuntza, ekoizpena, zabalkundea eta kalitatezko eskaintza bat sustatzeko politikak garatu ditu 2009. eta 2010. urteetan zehar, eta eduki horien eskuragarritasuna bultzatu du. Txosten honetan aurkezten dira politika horiek, azkeneko bi urte hauetan burututako jarduera guztiaren ikuspegi zabal bat eskainiz. Txosten hau, horrenbestez, urtero-urtero Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren jarduerak aztertu eta jasoko dituen beste tresna bat bilakatzen da horrela, era horretan Zuzendaritza hau bideratzen ari den jarduera-ildoan jarraipena egitea eta ebaluatzea errazagoa izan dadin.

Jarduera-ildo horiek garatzeko, Kultura Sustatzeko Zuzendaritza hau sentibera izan da euskal errealitate sozialean eta kulturazko errealitatean izan diren testuinguru-aldaketekiko eta eremu horrek dituen sektore bakoitzaren premia bereziekiko.

Euskal kulturaren garapen-Testuinguruan gertatu diren aldaketen artean, garrantzi handiena izan dutenen artean egoera ekonomiko zaila nabarmendu behar da, alde batetik, eragin handia izan baitu kulturaren errealitatean, eta beste aldetik, azpimarratu beharra dago aldaketa teknologikoen aurreramentu etengabea ere, aldaketa handiak eragin baititu kulturaren sorkuntzan, ekoizpenean, zabalkundean eta kontsumoan.

Ekonomiaren krisi globalak, hain zuzen ere, asko baldintzatu du azkeneko bi urte hauetako Testuingurua, eta ekimen pribatuan bezala administrazio publiko desberdinen aurrekontu publikoetan, bietan izan du eragina. Esandakoaren haritik, herritarren kontsumitzeko ahalmenak nabarmen jasan du egoera horren eragina, eta

gauza bera kultura-zerbitzuak kontratatzeke ahalmenak ere, administrazioak izaten baitira halakoetarako eskatzaile nagusietako batzuk. Errealitate horri programa bereziak bideratuz egin zaio aurre; programa horiei esker egoera arindu ahal izan da eta berrikuntzak egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko kulturaren sustapenerako formulatan, eta proiektuen iraungarritasun ekonomikoan, eta kulturaren kontsumoa biziberritzean oinarritutako eredu oinarriak ezarri dira.

Aldakuntza teknologikoen aldatzera behartu dituzte ekimen-ereduak ere, kulturazko balio-kate osoan zehar, tresna berri horiek zabaltzetik sortzen diren aukera berri guztiak aprobetxatzeko.

Errealitate aldakor horrek aldaketetara bizkor egokitzen jakingo duen administrazio bat eskatzen du, orobat; eta lan handia egin da helburu horretarako, hain zuzen, azkeneko bi urte hauetan. Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak aldaketa handiak egin ditu, esandakoari jarraituz; jarduera-ildo transbertsalak garatzeko ekimenak indartu dira, kulturako sektoreentzako zuzeneko laguntza eta babesa mantendu eta hobetu da, eta sentiberatasun handiagoa erakutsi da udalekiko eta tokian tokiko erakundeekiko elkarlanerako.

1.2. **Jarduera-ildoen eskema**

Txosten hau Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak bere jarduera-ildo transbertsaletik, sektorialetatik eta lurraldeen arabera jarduera-ildoetatik abiatuta jarraitu duen lan-eskemarekiko koherentziaz egituratzen da.



Hiru jarduera-ildo hauek egituratu dute Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak berari dagozkion eremuetan dituen erronkei eman beharreko erantzun politikoa, eta hala programa berriak eta kultura-politikak garatzeko formula berriak abiarazi ditu; etorkizunean hobeto aztertu beharko dira programa eta formula horiek, errealitatean zein eragin duten eta kulturaren errealitatea aldatzeko eta hobetzeko zenbateko gaitasuna duten etengabe analizatuz eta ebaluatuz.

Jarduera transbertsaleko ildoak

Jarduera-ildo transbertsalei dagokienez, sektore guztietan baitute eragina eta herritarrak jartzen baitituzte kulturako ekimen politikoaren erdi-erdian, esan beharra dago programa berriak garatzeko aukera ekarri dutela; batzuk hastapenetan daude oraindik, baina hala ere aldaketa eta berrikuntza handia eragin dute Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren lan-metodoetan. Jarduera transbertsaleko ildoek erantzun partziala edo sektorekako erantzuna aski ez den zenbait erronkari erantzun integrala emateko jarduera-marko bat eratzen dute. Jarduera transbertsaleko bederatzi ildo garatu dira, zehazki, 2009. eta 2010. urteetan:

- Sorkuntza Lantegiak
- Kultura Bultzatuz
- Kultura 2.0
- Kulturklik
- Kulturen aldeko Herritar Kontratua
- Kulturaren Euskal Behatokia
- Kultura Bona
- 2012 Euskadi, Bakearen eta Askatasunaren aldeko Kulturen Urtea
- Euskal Kulturaren kanporako proiektzioa

Sektorekako jarduera-ildoak

Jarduera-ildo transbertsalekin batera, kulturaren sektore bakoitzari bere premia berezien arabera laguntzeko politika bereziak garatu dira. Esandakoaren haritik jarraituz, nabarmentzekoa da sektore horietako bakoitzarekin izatea lortu den etengabeko elkarrizketa, erabakigarria izan baita programa berriak sartzeko edo lehendik zeuden programetan hobekuntza nabarmenak egiteko eta hala politika horiek kulturaren sektoreek bizi duten testuinguruetara hobeto egokitzeko. Elkarrizketa, malgutasuna eta adosteko gaitasuna izan dira sektoreekin egindako lanaren ezauzgarri komunak. Sektorekako sei jarduera-ildo garatu dira, zehazki, 2009. eta 2010. urteetan:

- Ikus-entzunezkoa
- Liburua
- Antzerkia
- Dantza
- Musika
- Ikusmeneko arteak

Lurraldekako jarduera-ildoak

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren politika egituratu duen hirugarren jarduera-ildoak lurraldekakoa da; jardue-
ra-ildo honen bidez Kultura Sailaren eta tokian tokiko kultura-eragile publiko zein pribatuen arteko lankidetz
a indartzea lortu da. Jarduera-ildo hau tokian tokiko mailan egiten den lan handiaren eta lan horrek Euskal Au-
tonomia Erkidego osoko kulturaren aurreramenaren duen eraginaren aitortzen bat da.

1.3. Aurrekontua eta laburpen-etaulak

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren aurrekontua handitu egin da; 2009. urtean 31 milioi euro izatetik, 2010ean
34,4 milioi euro izatera iritsi da; Kultura Sailaren aurrekontu osoaren %11,6 esan nahi du horrek.

Kultura Sailaren gastuen aurrekontua Zuzendaritzaz Zuzendaritza. 2009 – 2010

	2009		2010	
	€	%	€	%
Egitura eta Laguntza	5.899.054	1,9	7.376.160	2,5
Gazteria eta Gizarte Ekintza	6.473.748	2,1	5.658.740	1,9
Kirola	14.261.334	4,7	14.958.194	5,0
Kulturaren Sustapena	31.000.350	10,1	34.420.765	11,6
Ondarea	35.954.838	11,8	30.141.546	10,2
Gizarte Hedabideak	155.189.336	50,8	150.180.000	50,6
Hizkuntza Politika	56.648.340	18,5	54.221.595	18,3
GUZTIRA	305.427.000	100,0	296.957.000	100,0

Zuzendaritza honen kapituluz kapituluko aurrekontuak erakusten duen bezala, gastuaren %80-85 bitarteko kopuru bat transferentzietarako eta diru-laguntzarako –kapitalerako zein gastu arruntetarako– esleitzen da (4. eta 7. kapituluak). Datu horiek garbi erakusten dute kultura-ekimen desberdinei, bai publikoei zein sektore berean sortutakoei, laguntzeko egiten den ahalegina. Kapitulu horiei 8. kapituluan, ikus-entzunezkoen sektoreari egindako maileguak kontabilizatzen direnean, aipatzen diren partidak batu behar zaizkie. Eta aipatu beharra dago, azkenik, 2010ean gastu berri bat agertzen dela inbertsio errealean 6. kapituluan, Sorkuntza Lantegien programa berrirako esleitu dena.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren gastu-aurrekontua kapituluz kapitulu 2009-2010

Kapitula	2009		2010	
	€	%	€	%
1. kap. Langile-gastuak	764.144	2,5	1.007.145	2,9
2. kap. Funtzionamendu-gastuak	2.160.642	7,0	1.853.423	5,4
4. kap. Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak	19.831.344	64,0	19.727.079	57,3
6. kap. Inbertsio errealak		0,0	1.130.000	3,3
7. kap. Kapital-eragiketarako transferentziak eta diru-laguntzak	6.394.220	20,6	8.135.326	23,6
8. kap. Finantza-aktiboen gehikuntza	1.850.000	6,0	2.567.792	7,5
GUZTIRA	31.000.350	100,0	34.420.765	100,0

Txosten honetan jarduera-ildo bakoitzak 2009. eta 2010. urteetan zenbateko garapen-maila izan duen eta jarduera-ildo horien zedarrri nagusiak aztertzen dira. Aurreraxeago Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak² proiektuetarako emandako diru-laguntzen ikuspegi orokor bat izaten laguntzen duten laburpen-taula batzuk.³ aurkezten dira.

² Ondoko taula hauetan aurrekontuak eta laguntzak bi bider kontabilizatzea saihesteko irizpideak aplikatu dira; horregatik ez dute zertan bat etorririk txostenean erabilitako taulekin. Horren arrazoia hau da: badira programa eta laguntza batzuk transbertsaltasunari, sektorialtasunari eta lurraldetasunari berdin-berdin legezkiekeenak. Irizpide hauek aplikatu dira, zehazki:

- Sorkuntza Lantegientzako eta Kultura Bultzatuz programarentzako laguntzak jarduera-ildo transbertsaltat bakarrik kontabilizatzen dira eta ez jarduera-ildo sektorialtzat.
- Antzerki-egoitzak hartzen dituzten udalentsako laguntzak jarduera-ildo sektorialtzat bakarrik kontabilizatzen dira eta ez lurraldekako jarduera-ildotzat.

³ 4. eta 7. kapituluaren aurrekontu globala taula hauetan aurkezten diren diru-laguntzetan likidatutako gastuak baino handiagoa da, ikusten denez. Alde hori aurreikusitako gastuaren eta likidatutakoaren desberdintasunak eragina da.

Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-eragileen jarduerari eman zaien laguntzak ia 45 milioi euroko ahalegin ekonomikoa eskatu du 2009an eta 2010ean, eta 1.564 proiekturi eman zaie laguntza. Sektorekako jarduera-ildoek hartu dute laguntzarik handiena; hain zuzen ere oso diru partida handiak sartzen baitira horien artean; Euskadiko Orkestra Sinfonikoak hartzen dituen 8 milioi euroei dagokiena, esate baterako.

Diru-laguntzen laburpen koadroa, jarduera-ildoz jarduera-ildo

Jarduera-ildoaren mota	2009		2010	
	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €
Transbertsala	229	656.169	253	1.629.908
Sektoriala	434	20.212.641	507	20.445.785
Lurraldeen araberako ildoak	68	1.012.000	73	938.112
GUZTIRA	731	21.880.810	833	23.013.805

Jarduera-ildo transbertsalei dagokienez, proiektuei eman zaizkien laguntzek hazkunde nabarmena izan dute; 2010. urtean 1,6 milioi euroraino iritsi dira; hain zuzen ere, sorkuntza lantegiak eta Kultura 2.0 Programak partida hauetan sartu baitira urte horretan. Gainerako jarduera-ildo transbertsalek ez dute diru-laguntzetarako deialdirik egiten; Zuzendaritza honek bere kabuz bideratzen dituen ekimenak dira.

Jarduera-ildoetarako diru-laguntzen laburpen-koadroa, programaz programa

	2009		2010	
	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €
Kultura 2.0	0	0	29	262.242
Sorkuntza Lantegiak	0	0	4	880.000
Kultura Bultzatuz	229	656.169	220	487.666
GUZTIRA	229	656.169	253	1.629.908

Jarduera-ildo sektorialeki dagokienez, musika da Zuzendaritza honen diru-laguntza gehien hartzen duena, emandako diru-laguntza guztien %51,7 jaso baitzuen 2009an eta %49,9 2010ean; diru-laguntza ematen zaien proiektu guztien %18,4 eta %18,7 da (kontuan hartu behar da musikaren partidan kontabilizatzen dela lehen ere aipatu den Euskadiko Orkestra Sinfonikoarentzako diru-laguntza). Diru-laguntza gehien hartzen duen bigarren sektorea ikus-entzunezkoena da, diru-laguntza guztien %30 inguru. Eta zehaztu beharra dago, gainera, antzerkiak, dantzak eta musikak, jarduera-ildo sektorialetako laguntzez gainera, Kultura Bultzatuz programa transbertsalari dagozkion laguntzak ere hartzen dituztela.

Lurraldekako jarduera-ildoetako diru-laguntzen laburpen-koadroa

	2009				2010			
	Laguntza jaso duten proiektuak		Laguntza		Laguntza jaso duten proiektuak		Laguntza	
	Kopurua	%	€	%	Kopurua	%	€	%
Ikus-entzunezkoa	98	22,6	5.993.981	29,7	133	26,2	6.484.710	31,7
Liburua	72	16,6	1.326.334	6,6	112	22,1	1.530.872	7,5
Antzerkia	64	14,7	1.482.720	7,3	53	10,5	1.362.571	6,7
Dantza	33	7,6	365.000	1,8	38	7,5	365.000	1,8
Musika	80	18,4	10.457.839	51,7	95	18,7	10.198.672	49,9
Ikusmeneko arteak	87	20,0	586.767	2,9	76	15,0	503.960	2,5
GUZTIRA	434	100	20.212.641	100	507	100	20.445.785	100

Oharra: ikus-entzunezko partidan diru-laguntzak baizik ez dira kontabilizatu, eta ez alokairuak, alderaketa egin ahal izan dadin.

Diru-laguntzen xedeari dagokionez, balio-katearen arabera, laguntza horietako hiru laurdenak sorkuntza-eta produkzio-proiektuetarako eman dira. Sustapenak eta proiektzioak %11-13 inguru jaso du. Formazioa (%3-4, gutxi gorabehera) eta zabalkundea/erakusketa (%5-9 inguru) dira balio-kate horretan laguntza guztien hartu dutenak, alor horiek gero eta maizago elkar estaltzen duten balio-kate batean.

Lurraldekako jarduera-ildoetako diru-laguntzen laburpen-koadroa balio-kateen arabera

	2009				2010			
	Laguntza jaso duten proiektuak		Laguntza		Laguntza jaso duten proiektuak		Laguntza	
	Kopurua	%	€	%	Kopurua	%	€	%
Sorkuntza eta produkzioa	204	50,0	4.834.406	77,8	233	47,7	5.588.204	76,8
Zabalkundea eta erakusketa	39	9,6	317.261	5,1	71	14,5	651.974	9,0
Sustapena eta proiektzioa	137	33,6	784.694	12,6	157	32,2	801.973	11,0
Formazioa	28	6,9	274761	4,4	27	5,5	234592	3,2
GUZTIRA	408	100,0	6.211.122	100,0	488	100,0	7.276.743	100,0

Oharra: taula honetan ez dira kontabilizatzen hartzaile jakinei zuzenean emandako laguntza izendunak; lehiaketa publikoz emanak bakarrik; hala errazagoa baita alderaketak egitea.

Finalmente, las líneas de actuación territorial tienen asociadas las ayudas a festivales con dotaciones de 350.000 € y de 325.000 €, respectivamente, durante los años 2009 y 2010, y el apoyo directo a proyectos a través de subvenciones nominativas, a las que se han destinado en torno a 660.000 € anuales.

Lurraldekako jarduera-ildoetako diru-laguntzen laburpen-koadroa

Laguntza mota	2009				2010			
	Laguntza jaso duten proiektuak		Laguntza		Laguntza jaso duten proiektuak		Laguntza	
	Kopurua	%	€	%	Kopurua	%	€	%
Jaialdiak	51	75,0	350.000	34,6	54	74,0	325.000	32,9
Izenduna	17	25,0	662.000	65,4	19	26,0	663.112	67,1
GUZTIRA	68	100	1.012.000	100	73	100	988.112	100

Oharra: Ez dago sartuta Donostiako Udalarri Donostia Kultura hiriburua 2016 kontzeptupean emandako 418.431 €-ko laguntza izenduna.

2. **Jarduera-ildoak**

2.1. **Jarduera transbertsaleko ildoak**

2.1.1. **Sorkuntza lantegiak**

Testuingurua. Sorkuntzaren eta berrikuntzaren aldeko apustua

Kultura Sailaren politikak dagoen eredu sektorial tradizional zatikatuegi batetik, dauden sektoreek komunikazio-lekuak errazago aurkituko dituzten eta sortzaileek, industriek eta erabiltzaileek elkar errazago topatuko eta elkar-riketa malguago bat izango duten eredu integralago eta transbertsalago baterantz aldatuz joateko prozesu bat bultzatu nahi du. Beste alde batetik, sorkuntza-prozesuak garatzeko sormenaren katalizatzaileak izango diren egiturak eta guneak behar ditu: elkartrukea, diziplina arteko elkargunea, eta arte-adierazpen desberdinen arteko topagunea.

Kanpoan lehiakortasuna galtzeko, sormenezko indarra ahultzeko eta etorkizunerako ezaugarriak garatzeko ahu-lezian erortzeko arriskuari aurre egiteko, kultura-ekimenaren lehen-lehenengo mailan behar dira jarri sorkuntza eta berrikuntza. Era horretan, arteek adierazpen-askatasun handiagoa, askatasun ekonomiko handiagoa eta etorkizun bideragarri bat izan daitekeelako konfiantza handiagoa izango dute.

Kultura Sailak sorkuntzazko esperientzia-sare bat ehuntzeko apustu bat egiten du horrela; horretan sorkuntza lantegiak berebiziko garrantziko leku bat dute Euskal Autonomia Erkidegoko arte-jarduera berritzeko.

Programak. Hizkuntza eta talentu berrien sorkuntza-laborategiak

Sorkuntza Lantegiak artearen berrikuntzarako eta ikerketarako sorkuntzazko laborategiak eta tresnak dira alde batetik, eta kultura-ekoizpenerako tresnak, bestetik. Arte-diziplina desberdinetarako saiakuntzetarako eta sorkuntzarako lekua eskaintzen dute, beren proiektuak garatzeko hasierako laguntza bat behar duten taldeei eta artistei zuzendurik batez ere.

Sorkuntzarako inkubagailuak diren aldetik, lantegi hauek bereziki irekiak daude hizkuntza berrien esperimentazio-rako edota diziplina desberdinen arteko elkarriketarako. Gaur egungo hirien sormenezko bioaniztasuna ahalbidetzen duten leku gisa azaltzen dira, eta ikerketa mundu digitalaren eta teknologiaren eta arte-sorkuntzaren ingurura erakartzeko erakarpen-motorrak, eremu honetan dauden aukerak probatzen diren laborategiak bilakatzeko helburua dute.

Sorkuntzaren eta sorkuntza lantegien sustapena da Kultura Sailaren ildo estrategikoetako bat, 2009an Kultura sailburuaren aurkezpenean jaso zen bezala. Zalantzarik gabeko apustu hau Bartzelona, Madril, Berlin, Marseilla eta Londresen kokatuta dauden esperentziarik eta eredurik nabarmenenak aztertuz garatzen da 2010ean; ikerketa hori Kulturaren Euskal Behatokiak egindako ikerketa baten bidez eta Euskadiko espazioekin eta sortzaileekin eratzen ari diren harremanen eta sareen bidez egin da.

Eremu honetako ekimenak ezagutarazteko, 2010eko abenduaren 16an zabalkunde-jardunaldi batzuk antolatu ziren Bilboko Zorrotzaurren –*Sorkuntza Lantegiei buruzko Jardunaldia - Jornadas Fábricas de Creación*–, Kultura Sailak antolatuta; jardunaldi horietan parte-hartze aktiboa izan zuten erakunde publiko eta pribatuetako ordezkariak, gai honetako adituek eta era askotako sorkuntza eta kultura eremuetako hainbat pertsonak.

2010eko ekitaldian Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak lau proiekturi laguntzak emanez frogatu du Sorkuntza lantegiei eskaintzen dien babesa:

- Alfa Arteko «Sorkuntza Esperimentaleko Lantegia» proiektua; proiektu honen helburua elkarre horrek orain arte metatutako esperientzia artista berriei etengabeko elkarrizketan jartzea da; artista hauek ongi prestatutako teknikariak lagun dituztela egin ahal izango dituzte beren esperimenduak, laguntza horrek balio-kateko elementu desberdinetan, hala nola formazioan, sorkuntzan eta produkzioan eta horren zabalkundearen, eragiten ahalegindu nahi duen programa bat eskainiz hizkuntza berriei eta talentu berriei berme gisa balio diezaien.
- Azala gunearen AZALA 2010 proiektua; gaur egungo arte-sorkuntzaren eta gaur egungo arte-ikerketaren eremuan lan egiteko bereziki prestatuta dauden zenbait instalazio ditu; Arabako Lasierran (Erribera Goitia udalerrian) du bere lanerako lekua, baina Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetara zabaldu nahi du bere eragina, lehenik eta behin, eta Espainiako estatu osora eta beste eremu batzuetara ere bai.
- Lan Ekintzaren Bilboko Zorrotzaurren Sorkuntza Lantegiak zaharberritzeko eta egokitzeko proiektua, haietan sorkuntza- eta jeshualitate-laborategi bat jartzeko, euskarri berrietarako garatuz, eta esku-hartze artistiko, urbanistiko eta hiritar baterako proiektu bat bultzatzeko, erabiltzen ez diren industria-eremuak okupatuz, aldi baterako edo betirako sortzaile taldeek erabil ditzaten, work in progress kontzeptuaren irudipean.
- HARROBIAn, Ekoizpen Eszeniko Profesionaleko Berrikuntza Zentroan, ESKENAREN bitartez, inbertsioak egiteko proiektua, bereziki ekoizpen eszenikorako ereduak berritzera eta talentu berriak atzeman eta haiei laguntzera zuzendutako arte eszenikoen produkzioarako zentro bat abian jartzeko.

Sorkuntza Lantegiak programarako diru-laguntzen laburpen-koadroa

	2010	
	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €
ALFA ARTE, S.A.	1	45.000
AZALA	1	35.000
LAN EKINTZA-BILBAO, S.A. Zorrozaurre	1	500.000
HARROBIA ESKENA	1	300.000
GUZTIRA	4	880.000

2.1.2. Kultura Bultzatuz

Testuingurua. Kulturaren zuzeneko kontsumoa sustatzea, sektorea biziberritzeko

Gaur egungo ekonomiaren murrizketa-egoeran, Kultura Sailak kultura inbertsio ona delako eta ekonomian eragin handia duen baliabide bat delako uste osoa gogorarazi nahi dio euskal gizarteari. Kultura sendo batek onurak ekar ditzake, ekoizpeneko sektoreak dinamizatzen eta kultura eremuko enplegua indartzen lagun dezake.

Sektore hauei laguntzak emanez, esperantza-giro bat bultzatu nahi da, kultura-ondasunen kontsumoa sustatuz, kultura-kontsumoaren errealitate eta euskari berrien aurrean duten kokaera mantentzen lagunduko duen aberastasuna eta balio erantsia sortuz.

«Kultura Bultzatuz» arte eszenikoen eta musikaren eremuan ikuskari biziak bultzatuz kultura-lana eta kultura-kontsumoa





indartzeko xedea duen programa-multzo bat da. Kultura-jarduera bultzatzen duten enpresekin eta erakundeekin hitzartzeko guneak bilatzetik abiatuta, osagarri bat izan da, aldi berean, eskaintzaren ikuspegitik, xedea azken erabiltzailea duen kultura bonua programarentzat.

Programak. **Zuzeneko antzerkia, dantza eta musika, marka beraren azpian**

Antzerkia Bultzatuz

Programa honen asmoa ikuskarien kontratueta gertatzen ari den atzerkadari une bateko erantzuna ematea da, arte eszenikoen sektorean enpleguari eusteko asmoz batez ere. 2009an gazteentzako eta pertsona helduentzako antzokietako antzerkiri –euskaraz zein gaztelaniaz– bideratu dira laguntzak. Hasierako aurreikuspena 75 emanalditarako 150.000 €-ko diru-laguntzak ematea bazen ere, Programak sektore honetan izan zuen harrera ona ikusita, 274.619 €-raino jaso dira diru-laguntza horiek. Eta 115 emanaldi eragin dira, hasieran aurreikusten zirenak baino %53 gehiago.

2010ean kaleko antzerkia bultzatzea izan zen helburua; 23 udalerritako programazioetara bideratu ziren laguntzak; 73.666 €-ko aurrekontua izan zen, eta 94 emanaldi kontratatu ziren guztira.

Dantza Bultzatuz

«Dantza Bultzatuz» goiburua Kultura Sailak dantzaren alorrean garatzen dituen zabalkunde-programetarako marka bateratua izan da: gaur egungo dantza zirkuitua, Dantzan Bilaka eta Dferia-Dantzan, zehazki; dantzari dagokion atalean zehazten dira programa hauen helburuak.

2009an, aipatutako dantza-zirkuituaren barruan 59 emanaldi programatu ziren, 22 konpainiak emanak; jarduera hori handiagoa izan zen 2010ean, 27 konpainiak emandako 68 emanaldi izatera iritsi baitzen.

Dantzan Bilaka programaren emaitza gisa, urtealdi bakoitzean diru-laguntza eman zaien hamar koreografietako bakoitzaren hiru emanaldi antolatu dira 2009an eta 2010ean.

Eta, azkenik, Dferia-dantzan programaren barruan, sei produkzio taularatu ziren 2009an eta bost produkzio 2010ean.

Bi urte horietan zehar 481.000 €-ko diru-laguntzak eman dira «Dantza Bultzatuz» programarako: 237.000 € 2009rako eta 244.000 € 2010erako.

Musika Bultzatuz

Musikaren alorrean, sektore hau berrindartzeko asmoz abiarazi ziren zenbait ekimen zehatz garatzeko erabili da «Bultzatuz» marka; horien artean, ekimen berri bat, Zuzen-Zuzenean musika-zirkuitua; musikaren sektoreari dago-kion atalean zehazten dira programa honen helburuak.

Zuzen-Zuzenean musika-zirkuitua 2009an abiarazi zen, Euskadiko eta Nafarroako zuzeneko musika-areto pribatuen Elkartearen –Kultura Live, elkarte honek du ekimen hau koordinatzeko eta kudeatzeko ardura– eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren arteko elkarlanean. Kultura sailak 145.000 euroko diru-laguntza jarri du ordain-sarien eta kontzertuen produkzio-kostuen zati handi bat ordaintzeko. Ekitaldi honetan 46 kontzertu antolatu ziren –horietatik 10 doan– zuzeneko musika-emankizunak ematen dituzten 21 areto pribatutan; 59 musika-taldek hartu zuten parte, eta 15.000 entzule bildu ziren guztira.

2010ean, 170.000 €-ko aurrekontuarekin, 50 kontzertu antolatu zituen eta 67 musika-talde baino gehiagok hartu zuten parte. Zirkuituaren bigarren edizio honetan ez zen aldatu gau bakoitzeko bi musika-taldek parte hartzeko planteamendua (bertako musika-talde bat edo hastapenetan ari den talde bat eta talde nagusia). Berrikuntza bat izan zen: ospe handiko Euskadiz kanpoko talde batekin batera Euskadiko beste talde bat programatzeko formatu mistoa probatu da.

Kultura Bultzatuz programarako diru-laguntzen laburpen-koadroa

Laguntza mota	2009		2010	
	Jarduera kopurua	Aurrekontua €	Jarduera kopurua	Aurrekontua €
«Antzerkia bultzatuz» programa	115	274.169	94	73.666
«Dantza bultzatuz» programa	68	237.000	76	244.000
«Musika bultzatuz» programa	46	145.000	50	170.000
GUZTIRA	229	656.169	220	487.666

2.1.3. **Kultura 2.0**

Testuingurua. **Iraultza digitalari erantzun beharra**

Azkeneko urte hauetan informazioaren eta komunikazioaren teknologiek izan duten berebiziko garapenak eta gizartean izan duten eraginak erabat aldatu du bizimodua eta, bizimoduarekin batera, kultura-edukiak eskuratzeko eta kontsumitzeko modua ere beste horrenbeste. Teknologia horien dinamismoak eta berrikuntza-mailak ondorio iraultzaileak izan ditu kulturaren sektorean; eszenategi berri bat sortu du eta eszenategi horretan balio-kate tradizionala hautsi egin da eta oraindik ez daude definituta edukien ustiapenerako eredu berriak. Esan beharra dago eduki eta zerbitzu fisikoak eta eduki digital berriak batera dauden trantsiziozko eta aldi berean iraupenezko une bat dela oraingo hau. Kultura-edukien industrietan gailuen arteko mugak ezabatzen, zerbitzuak eta sektoreak batzen, guneak ugaltzen ari diren eta inoiz baino eduki gehiago kontsumitzen den egoera berrira egokitzeko modua bilatu behar dute.

Marko eta egoera aldakor horretan, Kulturaren Euskal Behatokiak, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren eskariz, ingurune digitalak Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-edukien industrietan zer eragin duen ezagutzeko ikerketa kualitatibo bat koordinatu zuen 2010ean. Ikerketa horren ondorioz, sorkuntza-munduko eta kultura-edukien industrietako ordezkariak eta erabiltzaileak paradigma berriaren klabeen diagnostia egin zuten, errealitate digital berri horretarako jarduera-ildoak proposatzeko asmoz. Lau lerro hauek kultura-baliabideen mapa digital bat prestatzera, sektore honetan formazioa hobetzera, edukien gordailu bakar bat sortzera eta digitalizaziorako laguntza bereziak garatzera jo beharra zegoela erakutsi zuten.

Ingurune digitala sortzen ari den premiei eta, bereziki, kultura-edukien industrietan azaldutako eskariei erantzun bat eman beharrak Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-edukien enpresentzat berrikuntza- eta lehiakortasun-programa berri bat sortzea izan du fruitua.

Kultura 2.0 laguntzak. **Kultura-edukien industrietarako I+G+b**

2010ean Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-edukien enpresentzako laguntza-ildo berri bat jarri du abian, enpresa horiek, informazioaren eta komunikazioen teknologien laguntzarekin, beren lehiakortasuna hobetu dezaten, kanpoko merkatuetan sar daitezen, prozesuak hobetu ditzaten edo produktua dibertsifikatu dezaten.

Zehazki esateko, kultura-edukien enpresei, eremu digitalerako laguntza pertsonalizatua eskainiz eta eremu horretan proiektuak burutzen laguntzeko ekimenak bultzatuz, berrikuntza teknologikoa bultzatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko asmoz sortua da Agindu hau.

Kultura 2.0 programarako diru-laguntzen laburpen-koadroa

	2010	
	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €
Banakako laguntzen modalitatea	24	162.919,64
Lankidetzeta-proiektuetarako laguntzen modalitatea	5	99.321,86
GUZTIRA	29	262.241,50

2010eko laguntzetarako deialdian bi laguntza mota eskaini ziren: proiektu indibidualetarako eta lankidetzan egiteko proiektuetarako. Zinemaren munduko, ikus-entzunezko arteen munduko, liburu-argitalpeneko, arte eszenikoetako, ikusmeneko arteetako, eskulangintzako, musikako, multimedia-sorkuntzako genero berrietako edo beselako edozein kultura edo arte-adierazpenetako kultura-ondasunak merkaturatzen diharduten eta eremu horietako bakoitzerako aurreikusita dauden baldintzak betetzen dituzten Enpresa Ertain eta Txikiei egin zitzairen deialdi hau, beren formula juridikoa kontuan hartu gabe. Deialdi honetan 29 proiekturi eman zitzairen laguntza; diru-laguntza 262.241 €-koa izan zen guztira.

2.1.4. Kulturklik**Testuingurua. Eskari baten gauzatzea**

Kultura sailburuak, 2009ko ekainean Eusko Legebiltzarraren aurrera lehenengo aldiz agertu zenean, azaldu zuen bezala, «kulturaren atari interaktibo bat garatzea bultzatuko da, eta eragile guztiek partekatzekeo plataforma komun bat izateko eskainiko da». Kulturaren Euskal Planean eta Euskadi Informazioaren Gizartean Planean agertzen zen proiektu bat zen, horietan bietan aipatzen baitzen euskal kulturaren atari interaktibo bat sortu beharra; 2008aren bukaera aldera jarri zen abian eta asko hazi da harrezkero.

Atari hau herritarren, sortzaileen eta kultura-bitartekarien esku jartzen den gune digital bat izateko sortua da, eta Euskadin kulturaren eremuan gertatzen den guztia bistaratzeko topagune bat nahi du izan. Eremu horri iraupena ematea du helburua, eta, horretarako, gizarte digitalak eta teknologia berrien garapenak botatzen dituzten eronkei etengabe erantzuteko asmoarekin sortu da.

2009ko uztailean hasi ziren hartzen lehenengo erabakiak atariaren eredu berriaz, eta urte horretako udazkenean eragileen sozializazio-prozesua hasi eta bloga zabaldu zen. Garai horretan hasi ziren teknikoki garatzeko lanak ere.

2010eko martxoan, prestaketetarako aldi bat igaro ondoren, Kulturklik (<http://www.kulturklik.net>) kalera atera zen, eta urte horretan zehar eragileak erakarri eta segurtatzeko lana eginez joan zen. Ataria hasiera-hasieratik dago gizarte-sareetan sartuta (Facebook eta Twitter).

Proiektua. **Euskal kulturara zabalik dagoen leiho bat**

Kulturklik lau ardatz nagusiren inguruan dago egituratuta: agenda, edukiak, ezagutza eta berriak; ardatz honek sektorez sektoreko bederatzi gai alorretako (ikusizko arteak; arte eszenikoak; musika, ikus-entzunezkoa; literatura; artxibategiak, liburutegiak eta mediatekak; museoak; ondarea; artisautza) eta hiru alor transbertsaletako (joerak; arlo berriak, diseinua eta bestelakoak; euskara 2.0) informazioa biltzen du.

2009an eta 2010ean 15.600 eduki kontabilizatu ziren; agendari dagozkion edukiak izan ziren nagusi (hamarretik zazpi). Berriak (2.500), ezagutza (1.500) eta edukiak (570) alorretan ez ziren hain handiak izan kopuruak.

Edukien banaketa gai alorren eta ardatzen arabera

	Agenda	Edukiak	Ezagutza	Berriak	Guztirakoak gai alorka*
Ikusizko arteak	1.461	81	376	631	2.549
Arte eszenikoak	2.987	68	335	543	3.933
Musika	4.414	120	384	669	5.587
Ikus-entzunezkoa	1.210	81	439	579	2.309
Literatura	970	322	589	619	2.500
Artxibategiak, liburutegiak eta mediatekak	171	13	215	193	592
Museoak	149	18	223	412	802
Ondarea	103	28	256	344	731
Artisautza	84	10	141	104	339
Joerak	87	70	267	204	628
Arlo berriak, diseinua, bestelakoak	165	21	391	380	957
Euskara 2.0	0	53	113	219	385
GUZTIRAKOAK ARDATZEN ARABERA**	11.045	578	1.497	2.477	15.597

* Gai alorkako guztirako kopuruak ilara bakoitzeko kopuruen baturarekin bat datoz, eduki bera ezin daitekeelako agertu ardatz bat baino gehiagotan.

** Ardatzen arabera guztirako kopuruak ez datoz bat zutabe bakoitzeko kopuruen baturarekin, eduki bera gai alor bat baino gehiagotan egon daitekeelako.



Informazio hau dena bi bidetatik iristen da: Kulturklikeko lantaldeak edukiak editatuko eta lotuko dituen informazioak ematen dituzten 450 esteka-bide jarraitzen dira; eta, beste alde batetik, erabiltzaileek ere eman dezakete informazioa eta estekak. Bide horretatik, beraz, 450 pertsona, erakunde, instituzio, enpresa eta bestelako baino gehiagok eman dute dagoeneko ataria elikatzeko informazioa; horien artean bereziki aipatzekoak dira udalak eta erakundeak (80), musikarekin loturaren bat dutenak (80), ikusmenezko arteekin loturaren bat dutenak (60) eta literaturarekin lotuak (50).

Kulturklikek erabiltzaile guztiak parte hartzea nahiko luke; horretarako komunikazioa kanal, kode eta estandar askeen bitartez bidera dadin ahaleginduz, eta ahal den guztietan software librearen bidez bideratuko du komunikazio hori. Hain justu ere, bere funtzionamendurako erabiltzen duen softwarea Wordpress da, «open source» aplikazio bat.

Atari honek 2010ean eskaini zituen zerbitzuen artean bereziki azpimarratzekoak dira buletinak (astekariak, hilabete-kariak, etiketa batez edo gehiagoren konbinazioz erabiltzaileen neurrira pertsonalizatuak), edukien esteka-bideak, erabiltzaileek informazioaren berri jakinarazteko formularioak eta bilaketa gomendatuak.

Erabiltzaileei dagokienez, Google-ren estatistikek erakutsi dutenez, 176.000 bisitari izan dira; horietatik 61.000 bisitari errepikakorrek edo ohikoak dira; 1.050 pertsona dira buletinaren harpidedunak eta 220 erabiltzailek buletin pertsonalizatuak jasotzen dituzte. Eta 123 pertsonak esteka-bideak dituzte.

Gizarte-sareetan duen presentziari dagokionez, Kulturklikek 400 jarraitzaile ditu Facebooken (hilean 50.000 aldiz sartzen dira ikustera) eta 262 jarraitzaile Twitterren.

Kulturklik programaren laburpen-koadroa

	2009	2010
GUZTIRA	96.676,41 €	273.323,60 €

2.1.5. **Kulturen aldeko Herritar Kontratua**

Testuingurua. **Planifikazio ekimen berritua**

Kulturaren Euskal Plana euskal herritarren zerbitzura egongo zen tresna bat izateko planteatu zen, kultura indarberitzeko lanerako plan bat izateko, 2009-2012 Orientabideen dokumentuan jasota dagoen bezala. Herritarrak dira planaren azken helburua, baina herritarrak dira planaren parte eragileak, batez ere. Herritarrak ekintzaren eta go-goetaren erdi-erdian. Horrela, hain zuzen, planteamendu berriak Planaren izenean bertan ere protagonista jartzen du herritarra: «Kulturen Aldeko Herritar Kontratua».

Aurreko Kulturaren Euskal Planaren barruan, azkeneko bi urte hauetan abian jarraitu dute lehendik abian zeuden talde operatiboek, eta plan horren egoerari buruzko ebaluazio-txosten bat eskatu zaio idazkaritza teknikoari, orain arte egindako lanaren indarguneak, ahulguneak eta egoera zein diren teknikoki lehen eskutik ezagutzeko.

2009. urtearen bukaeran, idazkaritza teknikoaren txostena eta Kulturaren Euskal Kontseiluak 2009ko otsailean onartutako 2009-2012 Orientabideen dokumentua edukita, Erakunde arteko Batzordearen bilera informal bat eskatu zen, eta aurrerantzean jarraitzeko ildo nagusiak adierazi ziren bertan. Horrekin batera, 2009an laneko zirriborro ireki bat landu eta, gero, 2010eko apirilean Erakunde arteko Batzordeko kideak diren erakunde guztiei aurkeztu zitzairen, dokumentu horretarako ekarpenak egin zitzaizkien.

2010eko abenduan Kulturaren Euskal Kontseilua bildu eta Kulturen Aldeko Herritar Kontratua dokumentua aurkeztu zen bilera horretan. Une horretatik aurrera ekarpenak aurkezteko epe bat zabaldu zen; ekarpen horiek jaso, bildu eta analizatu ondoren, 2011ko otsailean Kontseiluaren Osoko Biltzar berri baten aurrean aurkeztu ziren; bilera horretan lan-prozesua eta lana egiteko egutegia onartu ziren.

Kulturen Aldeko Herritar Kontratua. **Herritarra kultur ekintzaren ardatza**

Kontratu hau ezagutzaren eta globalizazioaren garai honetan euskal kultura askotariko, plural, iraunkor, bizi eta eskuragarri bat, herritar guztiek egina eta herritar guztientzako, garatzeko partaidetzazko proposamen ireki bat bezala ikusten da.

Oso ezaugarri zehatzak dituen testuinguru bat dugu: baliabide publikoak neurritz erabiltzera behartzen gaituen krisi-egoera; mapa politiko berri bat eta gobernu berri bat; kulturaren merkantilizatzea eta nazioartekotzea; Euskal Herriko kultura eremuaren zatikatzea eta tamaina txikia; iraultza digitala eta ziberespazioaren erabilera berriak; herritarren jarrera ekintzailea; kulturazko usadio eta ohitura berriak; eta gizarte ireki eta askotariko bat; egoera horretan gober-



nantzan, ongizate-estatuaren eskakizun sozialean, Garapen Iraunkorri buruzko Goteborgeko estrategian, Lisboako Agendako konpromisoetan eta UNESCOren Kultura aniztasunaren aldeko Hitzarmenaren apustuan oinarritutako garapen-ereduen irizpideak hartzen ditu beretzat Kontratu honek.

Planteamendu honen ondorioz, herritarrak jartzen dira ekintzaren ardatzean, kultura-sortzaileak eta kultura-edukien industriak sustatu nahi dira, erakundeen arteko ehuna eta sinergiak sortzen dituzten ekimenak sendotu nahi dira, gizartearen hedadura handiagoa lortu nahi da, kalitate oneko edukiak eta zerbitzuak bultzatu nahi dira, parte-hartze aktiboa bermatu nahi da, euskarazko kultura-edukien kontsumoa sustatu eta euskararen irudia ospez jantzi nahi da.

Premisa horiek hartuta, ekintza honi zentzua ematen dioten eta teknologiazko egokitzapena eta teknologia berrien garapena, kulturaren finantzaketarako mekanismoak garatzea, informaziorako irismena zabaltzea eta kulturaren hartzailerik, transmititzaile eta sortzaile gisa gizartearen hartzea konbinatzen dituzten lau ikuspegi integratzen dira.

Ikuspegi operatibotik begiratuta, ekintza hauek zazpi ildo estrategikotan kokatzen dira, proiektu transbertsal eta sektorial gisa. Kontratu hau antolatzen duten egiturei dagokienez, Kulturaren Euskal Kontseiluak politika publikoak orientatzen eskumen handiagoa izan dezala, sektoreen artean ezagutzaren transferentzia bultzatu dezala eta kulturaren sistema osoak komunean dituen arazoak tratatzea transbertsala indartzen lagun dezala nahi da. Ideia berriak eta freskura handiagoa izateko, 2010ean Kontseiluko kideak berri ziren. Sektoreko taldeez gainera, ekimen transbertsalarako lantaldeak sartuko dira; lantalde hauei funtzionatzeko eta erabakiak hartzeko mekanismo arinak eman nahi zaizkie, eta ordezkari zabal bat lortu nahi da, orobat, eta lortzen diren emaitzak jendaurrean ezagutarazteko informazio bideak hobetu. Erakundeek dagokienez, Eusko Jaurilaritzak Kultura Sailaren eta gainerako Sailen arteko koordinazioa eta elkarriketa indartuko du. Administrazio desberdinen arteko erakunde arteko koordinazio-egitura ere indartu nahi da, horretarako Erakunde arteko Batzordearen osagarri izango den lantalde operatibo bat sortuz.

Laburtuz, bada, 2009 eta 2010 urteetan egin den strategiaren azterketa-, berrikusketa- eta birformulazte-prozesu ireki eta partekatuen fruitu gisa, 2011. urtean hasi zen gauzatzen Kontratuaren alderdi operatiboa. (<http://plancultura-kulturaplana.wikispaces.com/>).

2.1.6. **Kulturaren Euskal Behatokia**

Testuingurua. **Informazioaren eta ezagutzaren garrantzia**

Kulturen aldeko Herritar Kontratua egituratzen duten ikuspegietakoa bat informazioaren irispideari eta ezagutzaren sorkuntzari dagokiena da; Kulturaren Euskal Behatokiaren bitartez bideratzen da eginkizun hori. Gauza jakina da behatokiaren eginkizun nagusia informazio baliagarria lortzea eta informazio hori aztertzea izaten dela, kulturaren sektore desberdinei eta kulturari dagokienez estrategia politikoak definitzeko ardura dutenei orientabideak eskaintzeko. Eginkizun hori betetzeko, garrantzi handiko gauza da ibilbide historikoa metatzea, horrexek ahalbidetzen baitu kulturari buruzko informazio-sistema erregular, iraunkor eta egituratu bat finkatzea.

Baina informazioa sortzeaz gainera, behatoki orok erantzun behar dion erronka izaten da errealitatea esplikatzeko eta ulertzeko; horretarako sektore desberdinetako eragileek esku-hartze aktiboa izan behar dute prozesu horretan, datuak interpretatzen lagunduko dieten espezialistekin batera. Ikuspegi horretatik, bada, Kulturaren Euskal Behatokiak oso laguntza handia izan du urte hauetan zehar: zeinek bere lekutik (ikerketak, sorkuntza, ekoizpena, programazioa, politika...) Behatokiak duen eginkizunari zentzua ematen lagundu dioten jatorri eta esparru desberdinetako eragile talde ugari bat.

Informazioa edozein testuingurutan ere balio handia bada ere, gaur egun bizi dugun krisi egoerak are beharrezkoagoa egiten du strategiak berrikusten, lehentasunak definitzen, politika koherenteak egituratzen eta kulturaren garrantzia ikusarazten lagunduko duten datuak edukitzea. Behatokia bezala errealitate oso hurbil baina aldi berean errealitate hori eguneroko urgentziarik gabe aztertzeko distantzia egoki batera dagoen tresna bat eskura izatea inoiz baino beharagoa da gaur egun.

Kulturaren Euskal Behatokia. Norabide berriak

Behatokiak azkeneko bi urte hauetan abiarazi dituen ikerketak eta azterketak era askotakoak izan dira. Alde batetik oinarritzko estatistikazko datu-bilketak eginez jarraitu da; lan honek jarraitasuna behar du, gerora segida historikoak eduki ahal izateko; beste alde batetik, lanerako bide berriak zabaldu dira, bestelako iturburu batzuetatik eskuratu-tako informazioa aztertuz, eta –gauza berri nagusia, hauxe– indar handiagoa eman zaie ikerketa kualitatiboari.

Zehazkiago azaltzeko, 2009an eta 2010ean Ondarearen eremuan (Artxibategiak), Arteetan eta kulturazko edukien industrian (Arte eszenikoak, Musika, Ikusmeneko arteak, Liburua) eta kultura alorretako gastu publikoen eremuan zentratu da Behatokiaren bere kabuzko estatistika lana. Dena batera harturik, Euskal Autonomia Erkidegoko 1.200 kultura-eragiletik gora, publikoak zein pribatuak, aztertu dira xeheki. Orain, bada, balio handiko informazio multzo bat metatu da, segidak finkatu ahala, sektore honen ikuspegi zabal baina xehe bat eskaintzeko balioko duena. Aipatu beharra dago, gainera, estatistikako operazio hauek krisiaren aurreko egoeraz eskaintzen duten erretratuak

are baliotsuagoa bihurtzen duela informazio hori, era honetan hobeto neurtu ahal izango baita krisiak kulturaren eremuan oro har egiaz izan duen eragina.

Beste alde batetik, *Enplegua eta kulturaren enpresak* azterketarekin Eustat, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila eta INEM bezalako erakundeekiko lankidetzarako bide berri bat abiarazi da. Gaur egungo Testuinguruan balio handiko informazioa eskaintzen duen beste azterketa transbertsal bat da. Ikerketa horren emaitzak 2010eko ekainean Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Gasteizen antolatu zituen «Kultura Enpresak, Sektore Sortzaileak eta Enplegua Sortzea» izenburupeko jardunaldietan aurkeztu ziren.

Baina berrikuntzarik handiena kulturari buruzko begirada estrategikoa zehazteko asmoz bideratu diren azterketa kualitatiboek eman zaien garrantzia izan da beharbada. Sorkuntzaz (Sorkuntza Lantegiak eta Sorkuntzari laguntzeko politikak); Kultura eta Digitalizazioa; Gazteak eta kultura-kontsumo berriak; Kultura finantzatzeko bideak; Kulturaren %1 aplikatzea eta Kulturazko Diplomazia ikerketek eta joerei buruzko koadernoek gai horietan bere politika bideratzeko lagungarri gisa balio izan diote Sail honi.

Behatokiak, aldi berean, beste behatoki batzuekin lan-sarean parte hartzen jarraitu du; marko horretan antolatu dira Nazioarteko III. eta IV. Lan Jardunaldiak, Bilbon eta Turinen, hurrenez hurren. Deustuko Unibertsitateak 2010ean Europako kulturaren behaketaren gaur egungo egoeraz eta etorkizunekoaz antolatutako «Think Tank» ekitaldian ere parte hartu zuen Behatokiak.

Gauza berrien artean aipatu beharra dago, orobat, Behatokiaren komunikazio bidea Kulturklien bitartez bideratu dela 2010etik aurrera, haren buletin berezi bat jarritz. Kanal hau Behatokiaren beste argitalpen batzuei gehitzen zaie, hala nola *Kultura 08-09* edo *Estatistiken eta Azterketen Bilduma*, gaur egun webean jarrita daudenak, biak. (<http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-19130/eu/>).

Kulturaren Euskal Behatokiaren operazioei dagozkien gastuak 210.000 €-koak izan ziren 2009 eta 175.000 €-koak 2010ean.

2.1.7. **Kultura Bona**

Testuingurua. **Erosketa bultzatzea kultura-merkatua biziberritzeko**

Kultura Bona Eusko Jaurlaritzaren '+ Euskadi 09' izeneko proiektuaren parte izanez hasi zen; proiektu honen helburua ekonomia suspertzeko bideratutako ekimenak bultzatzea zen. Enpresei laguntzeko eta enplegua sortzeko helburua duten neurri sail bat dakar. Kulturazko produktuen kontsumoa eta saltokiak bultzatzea da plan honetarako xedatutako 367 milioi euroak banatzen diren ekimen multzoaren parte bat.

Marko honetan, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak Kultura Bona programa jarri du abian; arte- eta kultura-produkzioaren merkatua indartzea du helburua, horretarako 2009-2010 Gabonetako kanpainan kultura-produktuak



erostea sustatuz. Ekimen honen osagarri gisa, 2009ko abenduan komunikazio-kanpaina bat egin zen, 'Kulturaz Hazi - Consuma Cultura' goiburuarekin, EITBekin batera, kulturajarduerak ekar ditzakeen onura batzuk azpimarratuz.

Programa. **40 euroko gastua kulturan,
25 euroko bonu bat erosiz**

Kultura Bonuak diru-osagarri bat eskaintzen die zuzenean herritarrei, kulturazko produktuetan egiten duten gastuaren osagarri. Salmentara eta erakusketara jotzen du zuzenean eta, bide batez, eragina du kulturazko produktuen sorkuntzan eta ekoizpenean egiten diren inbertsio publikoen errentagarritasunean. Horrek sortzen duen eragin ekonomiko positiboaz gainera, kulturazko produktuak erostearen eta oparitzearen balioa sustatzen du.

Bonu horiek 25 euroan saltzen dira, baina 40 euroko balioa ematen diote daramatzanari, liburuak eta musika erosteko, edo museoetarako, zuzeneko ikuskarietarako eta bestelako kultura-ekitaldi batzuetarako sarrerak erosteko. Eusko Jaurlaritzak jartzen du bere aldetik bonu bakoitzaren 15 euroko alde hori. Programa hau Euskal Autonomia Erkidegoko aurrerki kutxen bitartez kudeatu zen, eta Gabonetako kanpainetan gauzatzen zen (abendu erdi aldetik urtarrilaren erdi aldera arte).

2010-2011 kanpainak programa hau finkatzea ekarri zuen; bonu-salmenta %6 hazi zen 2009ko kanpainaren aldean, eta kanpaina bukatu baino lehen agortu ziren bonu guztiak (hasieran pentsatuta zeuden 24 egunetatik 18 egunetan). 2010ean, 885.000 euroko inbertsio bat eginez 1.475.000 euroko gastu pribatua izatea lortu zen.

2009an eta 2010ean saldutako banuen lurraldekako banaketa

	2009		2010	
	Bonu kopurua	%	Bonu kopurua	%
Araba	8.861	16	10.800	18
Gipuzkoa	12.282	22	14.040	24
Bizkaia	34.482	62	34.160	58
GUZTIRA	55.625	100	59.000	100

2009ko kanpainan 287 saltokik hartu zuten parte, eta 2010ekoan 366k; %27 hazi zen kanpainan parte hartu zuten saltokien kopurua. Saltoki hauen artean liburu-dendak dira gehienak (%77), baina badira antzokiak (%7), musika dendak (%15), museoak (%4), kontzertu-aretoak (%4) eta zinema-aretoak ere (%3).

Kanpainetan parte hartu duten saltokiak lurraldez lurralde, 2009 eta 2010

		2009	2010	% hazkundera
Araba	Gasteiz	24	27	12,5
	Herriak	5	8	60
Gipuzkoa	Donostia	34	49	44,1
	Herriak	50	71	42
Bizkaia	Bilbo	70	87	24,3
	Herriak	104	124	19,2
GUZTIRA		287	366	27,5

2.1.8. **2012 Euskadi Bakearen eta Askatasunaren aldeko Kulturen Urtea**

Testuingurua. **Gernika, Durango, Eibar eta Bilboko bonbardaketen 75. urteurrena**

2012an Durango, Eibar, Bilbo eta Euskadiko beste herri batzuk, kultura unibertsalean gerra garaian zibilen kontrako ankerkeriaren salaketaren sinbolo gisa geratu den Gernikako herria, besteak beste, birrindu zituzten bonbardaketen 75. urteurrena gogoratzen da.

Mende erdiz luzatu den bortxakeria terrorista, ikusten diren seinaleek eta euskal herritarren gogoak erakusten duten bezala, behin betiko bukatuko delako itxaropen sendoa dagoen une batean gertatzen da, gainera, urteurren hori.

Urteurren historiko bat izango da, beraz, itxaropenez betetako testuinguru batean, gizarte dinamizatzaile batean eta aukera berriz betetako aldi batean.

Proposamena. **Kulturaren balioa. Kultura askatasuna da**

Bi urte hauetan, deskribatu den testuingurutik abiatuta, Kultura Sailak uneari egoki iritzi dio, kulturaren baliabide guztiak tolerantzian eta berdinen arteko errespetuan oinarritutako garai berri baten bila mobilizatuz, askatasunaren eremua zabalduko duen bakea lortzeko guztion lehian topagune bat proposatzeko.

2010ean *Eusko Jaurlaritzaren Egitasmo Esanguratsutzat* hartu da iragana gogoratzeraz eta bestelako etorkizun baten itxaropena izatera animatzeko, eta 2012 Euskadi, Bakearen eta Askatasunaren aldeko Kulturen Urtea izan dadin laguntzeko jarduera estrategiko bat prestatu da.

Antolamenduari dagokionez, parte hartzeko prestutasuna izatea eta gizartean gogo-kidetasunak bilatzea, ekoizpen adostua eta hurbileko enpresa-ehunean konfiantza izatea eta ehun horren hazkundearen aldeko apustua egitea oinarritzeko premisa eta abiapuntutzat hartzetik abiatzen da.

2.1.9. **Euskal Kulturaren kanporako proiektzioa**

Testuingurua. **Mundura zabalik dagoen kultura bat**

Euskal kultura mundura zabalik egon da tradizioz. Joan den mendeko emigrazioak, Ameriketarakoak batez ere, eta beste herrialdeekiko harreman kulturek eta ekonomia-trukeek kultura ireki bat eta aldi berean nortasun ongi markatua duena eraikitzen lagundu dute. Euskaldunen musika, literatura, arte eszenikoak, ikusmeneko arteak eta

zinema aspalditik ari dira kanpora ateratzen, eta onespen zabala hartu izan dute bai jendearen aldetik bai kulturako sektorearen beraren aldetik ere.

Berezko merkatua txikia duen garrantzi handiko produkzio batentzat muga zabalagoak bultzatzea, geure kultura ezagutaraztea eta beste kultura batzuk ezagutu eta geureganatzeko gai izatea Kultura Sailak aspalditik dituen helburuak dira eta horiek lortzeko lanean jardun du azkeneko urte hauetan.

Lanerako jarraibide hori kulturazko diplomazia esan ohi dena da: gizarte baten kulturazko adierazpenak ezagutarazteko edo pertsona eta herri desberdinen artean elkarrizketarako zubiak eraikitzeo oinarrizko elementutzat kulturazko balioak eta baliabideak hartzen dituen diplomazia modua, alegia. Herri baten bisita-txartelik hoberenetako bat, beste era batean esanda. Kulturaren Euskal Behatokiak orientabidezko txosten bat prestatu dut 2010ean azkeneko urte hauetan gero eta leku handiagoa hartzen ari den kontzeptu honi buruz.

Programak. **Kanpoko merkatu nagusietan askotariko ekoizpen bat aurkeztea**

Euskal kulturaren kanporako zabalkundeak munduko liburu-azotarik garrantzitsuenetan erakutsi du Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpena; 2009 eta 2010eko Kimuak programan aukeratu ziren film laburrek 184 sari irabazi zituzten; Euskadiko Soinuak Katalunian, Andaluzian, Danimarkan eta Cannesen izan da; euskal antzerkiak Espainiako estatuko azotarik garrantzitsuenetan parte hartu du, eta euskal artea Arcon (Madril), Chicagon edo Vienan ere izan da, beste azoka batzuen artean.

Liburua

Euskal liburua munduko hainbat azokatan izan da: Guadalajarako azokan (Mexiko), Frankfurtoko liburu-azokan, Boloniako Haurrentzako Liburu Azokan eta Bartzelonako eta Madrilgo Azoketan. Euskadiko ordezkartzan sektore honetako zenbait elkarte ere izan dira, hala nola Euskadiko Argitaratzaileen Elkarte eta Euskal Editoreen Elkarte eta argitaletxe nagusietako batzuk.

Komikiak, bere aldetik, pribilegiozko lekua izan zuen FICOMICen; Euskadi izan zen gonbidatutako Erkidegoa, eta han aurkeztu zen Euskomik-Euskal Komikia marka. Antonio Altarribaren «El arte de volar» lanak izan zuen berebiziko arrakastarekin batera gertatu zen urte horretan gure presentzia.

Arte eszenikoak

Kultura Sailak baditu diru-laguntzak euskal konpainiek Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiten dituzten itzuli eta emanaldietarako. Aipatzekoa da, orobat, Euskal Eszena programa, euskal sorkuntzak munduan ezagutarazteko, eta hala kultura-trukea bultzatzeko eta euskal antzerki-industriarentzat zabaltzeko eta saltzeko merkatu berriak sortzeko helburua duena. Horretarako antzerki-produkzioaren, zabalkundearen eta programazioaren katalogo oso

bat prestatzen da, eta zabalkunde handia ematen zaio. Euskal antzerkia ezagutzera emateko helburu hori lortzeko, hitzarmenak sinatu dira Tàrregako Firarekin, Valladolideko TAC-arekin, Valentziako Contariarekin, Huescako antzerki eta dantza feriarekin eta Lleidako Feria de Titellesekin.

Horrez gainera, Kultura Sailak lagunduta antzerkiaren sektorea bi urtez behin Sevillan izaten den Mercartes 2010 antzerki-azokan izan da, Eskenari eta SAREari, euskal antzerki-jarduera erakuts zezaten eskaintako stand batean.

Baina kanpora bidaiatzeaz gainera, euskal antzerki-eskaintza ezagutzera emateko beste bide bat alderantziko espedizioak izan dira, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan antolatzen diren bi ferietan, Leioako Umore Azokan eta Donostiako Dferian, Europako eta Ameriketako zuzendariekin topaketak *in situ* antolatzea, alegia.

Ikusmenezko arteak

Alor honetan Euskadiko eragileek Euskadiz kanpo egiten diren erakusketetan eta bestelako arte-ekitaldietan, Euskadin bizi diren egileen proiektuak edo lanak ezagutarazteko, parte hartzea ez ezik, arte-galeriek nazioarteko gaur egungo arte-ferietan euskal artisten lanak eramanez parte hartzea ere bultzatu da. Horrela, euskal artea ikusgai egon da Art Chicago, Arco, Art Forum, Art Lisboa, Viena, Madrid Foto eta Valentziako ferietan, besteak beste.

Musika

2009 eta 2010 bitartean, euskal musikak musika-feria profesional nagusietan parte hartu du (Mercat de Música Viva Vic-en, Womex, Monkey week, Midem), sektore honetan diharduten euskal enpresen lanaren zabalkunde-rako euskarri gisa erabiltzen den Basque Music - Euskadiko Soinuak markarekin.

Beste ekimen batzuk ere kontuan hartu behar dira, hala nola Euskadi eta Akitania arteko musika-sektoreen Lehenengo Topaketak edo Kataluniarekiko musika-trukea. Asko bidaiatzen duen beste erakunde bat, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa da. Hain zuzen ere, erakunde horren sorrerako helburuetako bat horixe da: Orkestrak, kultur enbaxadore gisa, kanporako proiektzioa izatea. 2009an Orkestra Italian izan zen, eta Cremonan, Milanen eta Monzan eman zituen kontzertuak. Espainiako zein nazioarteko beste orkestra batzuekiko trukeak egiteko politika ere beste entzuleria batzuekin harremanak izateko garrantzi handiko bidea da orobat.

Ikus-entzunezkoa

Euskal ikus-entzunezkoen mundua mundu zabalera ateratzen duten bi Programak Kimuak eta Niniak dira. Bi horietan lehenengoak, Euskadiko Filategiak kudeatuak, film laburrak sustatzea, zabaltzea eta banatzea du helburua, eta jarraitu beharreko eredua bilakatu da, askotan lortu baitu euskal film laburrak aukeratzea eta berak aukeratutako film laburrak saritzea.

Euskal ikus-entzunezko produkzioa kanpoko merkatuetara ateratzen laguntzeko xedea duen Niniak Programak sektore hori kanpoko zenbait erakusketetara eramaten lagundu du; MIPTV, MIF, Sunny Side of the Doc eta MIPCOM,

Basque Audiovisual markaren baitan bilduta betiere. Programa honek badu katalogo komertzial bat ere, on line jarria.

Kanpora bidaiatzeaz gainera, erakustokirik garrantzizkoenetako bat Donostiako Nazioarteko Zinemaldian du euskal ikus-entzunezkoen sektoreak. Zinemaldi horretako Zinemira – Euskal Zinemaren Panorama sailak nazioarteko A kategoriako zinemaldietako batean gehienbat edo osorik euskaldunek ekoiztitzako zinema egongo dela bermatzen du.

Etorkizuna. **Etxepare Euskal Institutua**

Etxepare Institutuaren helburuetako bat, helburu horiek arautzen dituen apirilaren 20ko 3/2007 Legeak dioen bezala, «euskal kultura, bere hizkuntza ofizialetako edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adierasmoldetan, kanpoan ezagutarazten eta hedatzen laguntzea, bereziki euskaraz sortutako kultura-eskaintza sustatuz eta bermatuz» da. Maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuak xedatzen du, orobat, Institutu horren eginkizuna dela Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo euskal kulturaren sustapena egitea, eta kontzeptu horretan sartzen direla musika, arte eszenikoak, ikusmeneko arteak, zinema, arkitektura eta diseinua ere.

Beraz, 2011tik aurrera, euskal kultura kanpoan sustatzeko eginkizunaren ardura Etxepare Euskal Institutuak du bere gain, horretarako arte adierazpen bikainak nazioartera ateratzea bultzatuz, artistak eta artelanak kanpoan zirkulatzeko laguntza emanez eta euskal arte-ondarearen ezagutza zabalduz. Gure kultura-munduan erakusteko eginkizuna horren barruan sartzen da nazioarteko ekitaldietan, erakusketetan eta zinemaldietan, esate baterako, parte hartzea eta halako leihoak euskal kulturari zabaltzea. Horretarako, aipatutako arte diziplinentzako laguntza-deiak kudeatzeaz arduratuko da, dagozkion beste eginkizunen artean.



2.2. Sektorekako jarduera-ildoak

2.2.1. Ikus-entzunezkoa

Sektorea. **Telebistarako bideratutako industria bat**

Ikus-entzunezkoena da, beharbada, kultura-edukien industrian, gaur egungo gizartean eragin eta garrantzia handiena lortzen ari denetako bat. Industria honek eskatzen dituen ekoizpenerako eta emititzeko baliabide ahaltzuek, medio honen moldagarritasunak eta beste adierazkera batzuekin bateratzeko duen gaitasunak, eskakizun eta kontsumo handiak eraginda, industria honen garapenak eragin nabarmena du kultura-aberastasunean eta aberastasun ekonomikoan.

Hain zuzen ere, berau da Euskal Autonomia Erkidegoan industrializazio-mailarik altuena lortu duen eta lanpostuak sortzeko ahalmenik handienetakoa duen sektoreetako bat. Hala erakusten dute Kulturaren Euskal Behatokiak egin dituen azterketek; horiek erakusten dutenez, produkzioaren ikuspegitik, enpresa txiki eta ertainez osatua izatea da enpresa-ehun honen ezaugarrietako bat, nahiz eta badiren tamaina handiagoa hartu duten enpresak ere, telebistarako produkzioan espezializatu direnen artean batez ere.

Programak. **Finantzatzeko eredu berriak**

Datuek erakusten dutenez, finantzaketa publikoarekiko autonomia handia duen sektore bat da; horregatik, sektorearen lehiakortasuna hobetzera bideratzen dira sektore honetarako xedatzen diren laguntzak. Zentzu honetan, bada, bi urte honetan lehendik zetozen Programak finkatu dira eta berriak abiarazi dira sorkuntzaren eta ekoizpenaren ikuspegitik eta zabalkundearenetik begiratuta agertzen diren zailtasunak konpontzeko eta bideratzeko, horretarako finantzaketa-mekanismo berrietan industriako logika txertatuz.

Finantzaketari dagokionez, euskal ikus-entzunezkoaren sektorean ekoizpena, lehiakortasuna eta enplegua indartzea bultzatzen da, horretarako bi bidetatik ekinez: interesik gabeko mailegu-lerro bat, eta telebistekiko edo banatzaileekiko kontratuak finantzatzeko beste mailegu-lerro bat. Mailegu gisa eskaintzen den finantzaketa-eredu honetarako 2.225.760 € izendatu dira, bederatzi proiektutarako, zehazki.

Ikus-entzunezko proiektuen finantzaketarako laguntza-eredu berri honen parean **sorkuntzari eta ekoizpenari laguntzeko** lerroak mantendu dira; lau tipologiatan banatu dira:

- Gidoiak sortzeko laguntzak. 2009an hamar gidoi sortzeko laguntzak eman ziren. 2010eko deialdian hogeita hamar urtera iristen ez diren eta zinema-aretoetan komertzialki erakusteko film luzeren batean gidoigile bezala agertzen ez diren gidoigile gazteentzako modalitate berri bat sartu da (sorkuntzarako laguntzak jaso dituzten bederatzi gidoietatik hiru modalitate honetakoak ziren).

- Ikus-entzunezkoak sortzeko, garatzeko eta ekoizteko laguntzak; sei modalitate dira: Proiektuak diseinatzea, fikziozko zinemako film luzeak ekoiztea, fikziozko film luzeak ekoiztea (2010eko deialdian telebistarako film luzeak ere barruan sartu dira), marrazki bizidunen zinemako film luzeak ekoiztea, sorkuntzazko dokumentalak ekoiztea eta film laburrak ekoiztea. Laguntza hauei dagokien kopurua 2,5 milioi euro zen 2009an eta 3,2 milioi euro 2010ean; eta 50 proiektu eta 51 proiektu baliatu ziren horiez, hurrenez hurren.
- Fikziozko eta animaziozko zinemako film luzeak eta sorkuntzazko dokumentalak sustatzeko eta publizitatea egiteko laguntzak; zortzi proiektu baliatu dira laguntza hauez: lau proiektu 2009an eta lau proiektu 2010ean, 219.293 € eta 223.940 € hurrenez hurren, guztira.
- Euskarri berrietarako laguntzak. Laguntza hauen bitartez, euskarri berrietarako (Internet, telebista digitala, kontsolak, gailu mugikorak, euskarri optikoak eta abar) ikus-entzunezko edukiak eta media askotarako edukiak (hedabide eta kanal teknologiko desberdinen bitartez transmititu, birtransmititu, erabili edo bana daitezkeen edukiak) sortzeko eta ekoizteko proiektuei laguntzen zaie. Laguntza hauetarako xedatu diren kopuruak 40.000 € euro izan ziren 2009an eta 62.000 € 2010ean, lehenengo urtean zazpi proiektuentzat eta bigarrenean hamaika proiektuentzat.

Euskarazko zinema sustatzea lehentasunezko eginkizuna izan da Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarentzat; Sail honek Zinema Euskaraz eta Zinema streaming Programak garatu ditu horretarako. 2009 eta 2010. urteetan aldakuntza handiak egin dira programa horien kudeaketari dagokionez. 2009an Euskadiko Filmategia Fundazioari esleitu zitzaion «Zinema Euskaraz» programa kudeatzeko eginkizuna: Programa horren barruan lau film luze bikoiztu ziren euskaraz, zinema-aretoetan emateko, eta hogeitazko film luze DVD formatuan banatzeko.

2010ean hitzarmen bat sinatu da EITBren eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren artean, «Zinema Euskaraz» programari berriro ekiteko; horrekin emaitza hauek lortu dira: 15 film luzeren ustiaketa zinematografikorako eskubideak eta 22 film luzeren bideozko ustiaketarako eskubideak kudeatzea, zinema-aretoetan emateko bi film luze euskaraz bikoiztea, DVD formatuan banatzeko bi film luze euskaraz bikoiztea eta film horien 1.000 edo 2.000 kopia merkatura ateratzea eta, azkenik, aipatutako ekimen horiei dagokienez sustapen-kanpaina bat egitea. 2010. urtean, «Zinema Euskaraz» programaren barruan, hogeita hamar film hautatu dira eta haien eskubideak kudeatu dira, gainera, *streaming* sisteman emititu ahal izateko.

Euskarazko zinemarentzako laguntza eta sustapen eginkizun horren barruan, azkeneko bi urte hauetan aurrerapauso handi bat egin da, ICAA, Zinematografiako eta Ikusmeneko Arteetako Institutuarekin hizkuntza koofizialen funtsari buruzko hitzarmenari esker. 2009an eta 2010ean hitzarmen bana sinatu ziren Kultura Ministerioarekin, euskarazko zinematografiako industriaren ekoizpena, banaketa eta sustapena bultzatzeko. 2009an 738.420 euro jaso ziren eta 2010ean 1.365.000 euroraino iritsi zen kopuru hori.

Banaketaren alorrean aurreramentu handiak egin dira azkeneko urte hauetan. 2010ean lehenengo aldiz egin zen zinema-aretoentzako laguntzetarako deia, zinema-aretoetan Europar Batasuneko eta Hego Amerikako filmen kopiak proiektatzeko, zehazki. 29 zinema-areto jaso dituzte laguntza hauek.

Sektore honekin banaketaren eremuan ere **elkarlanean jarduteko** borondate horren barruan, Zineuskadi Elkarteak sortu da 2010. urtean: bazkide fundatzaile hauek izan ditu: Europar Batzordea, Media Programaren bidez; Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, eta IBAIA eta EPE-APV ikus-entzunezkoen ekoizleen elkarte independenteak. Elkarte hau Antena Media Euskadi bulegoa kudeatzen ari da dagoeneko, eta zinema-aretoen sare bat sortzea bultzatu nahi du, Euskal Autonomia Erkidegoko aretoetan zinema askearen kuota ziurtatzeko, batez ere europar zinemari eta euskal zinemari, euskarazkoari batez ere, arreta berezia jarritz. Era berean ikus-entzunezko lanak edo lan zinematografikoak eta industria honetako profesionalak zirkularazteko jaialdiak eta ekitaldi-sareak sortzea bultzatu nahi du.

Euskal zinemaren kanporako proiektzioa ere jarduera-ildo estrategiko bat da Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarentzat; lan-ildo hori oinarritzko hiru bidetan indartu da azkeneko urte hauetan: Donostiako Nazioarteko Zinemaldian parte hartzea, film laburrak nazioartean sustatzeko Kimuak programa eta sektore hau ferietan egon dadin laguntzea.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Donostiako Nazioarteko Zinemaldia kudeatzen duen elkartearen laurden bat osatzen du; Zinemaldi hau erreferentziatzeko puntu bat da sektore honentzat, proiektzio-ahalmen handia du, eta zinemaldirik garrantzizkoenetako bat da Europa osoan eta munduan. 2009 eta 2010. urteetan Zinemaldi horren beste bi ekitaldi antolatu dira, Donostiako Zinemaldian gehienbat euskal herritarrek ekoiztu edo egindako zinemari agerraldi nabarmenagoa ematen dion Zinemira – Euskal Zinemaren Panorama saila mantenduz. Bi edizio horietan Imanol Uriberri eta Alex Angulori eman zitzaizkien Zinemira (euskal zinemaren saria).

Kimuak programaren helburua film laburrak sustatzea, zabaltzea eta banatzea da. Orain arte egin dituen hamalau urteetan zehar erreferentzia-puntu bilakatu da mundu zabalean. 2009an hautatu ziren zortzi film laburrek Espainiako eta nazioarteko zinemaldietan 977 aldiz hautatuak izatea lortu zuten eta 123 sari irabazi zituzten. Kimuak 2010 osatzen duten lanek, berriz, 1060 aldiz hautatuak izatea lortu dute, eta 211 sari irabazi dituzte dagoeneko. 2010ean 36.880 € izendatu ziren programa honetarako; 2009an, berriz, programa honi zegokion aurrekontua Euskadiko Filmmategia Fundazioari emandako diru-laguntza izendunaren barruan zegoen.

Niniak Programak euskal ikus-entzunezkoak kanpoko merkatuetan agertzea du helburua; ikus-entzunezko munduko hainbat enpresa, ekoizleak eta banatzaileak gehienak, 2009an eta 2010ean, Basque Audiovisual markaren izenpean bildurik, MIPTV, MIF, Sunny Side of the Doc eta MIPCOM ferietan bere stand berezi batekin egoteko aukera ekarri du. Programa honek badu katalogo komertzial bat ere, *on line* jarria: 39.900 €-ko aurrekontua izan zuen 2009an, eta 23.880 €-koa 2010ean.

Ikus-entzunezko ondareari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskadiko Filmmategia Fundazioari laguntzen jarraitzen du, fundazio honek zinema aztertzeke, oro har, eta bereziki euskal zinema ikertzeke interesgarriak diren filmak eta ikus-entzunezko lanak aztertzeke, berreskuratzeke, artxibatzeke, kontserbatzeke eta, erakutsi daitekeenean, erakusteko egiten duen etengabeko lanean. Eremu honetan, aipatzekoak dira 2009-2010 bitartean: «Kimuak» programa kudeatu izana, materialak telezinemara pasatzea, Filmmategiko ondarea digitalizatzea eta indexatzea, ondarearen inbentarioa egitea eta zinemaldiekin eta elkarteekin jendearren premiei erantzuteko eta batez ere ikus-entzunezkoen sektorearen premiei erantzuteko egindako elkarlana.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta sektore honetako eragileen arteko akordioa proiektu zehatzetarako eta elkarlan iraunkorreko markoetarako, bietarako egiten da. Zentzu horretan, bada, bai 2009an bai 2010ean hitzarmenak sinatu dira Euskadiko Ekoizle Burujabeen Elkartearekin (IBAIA) eta Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterra (EIKEN) Elkartearekin, elkarte horiei aurreikusita dauzkaten jarduerak gauzatzen laguntzeko.

Ikus-entzunezkoetarako laguntzen laburpen-koadroa

Laguntza mota	2009		2010	
	Laguntza jaso duten proiektuak	Mailegua	Laguntza jaso duten proiektuak	Mailegua
Maileguak	4	1.226.300	5	999.460
	2009		2010	
	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €
Gidoiak sortzea	10	105.000	9	109.800
Fikziozko film luzeak eta Tb-movieak sortzea, garatzea eta ekoiztea	9	1.441.420	8	2.017.628
Marrakzi bizidunen film luzeak sortzea, garatzea eta ekoiztea	3	440.810	3	440.052
Sorkuntzako dokumentalak sortzea, garatzea eta ekoiztea	7	181.190	12	367.320
Film laburrak sortzea, garatzea eta ekoiztea	15	210.000	14	200.000
Proiektuak sortzea, garatzea eta ekoiztea	16	260.000	14	200.000
Sustapena	4	219.293	4	223.940
Euskarri berriak	7	40.000	11	62.000
Zinema-aretoentzako laguntzak			29	297.044
Kanporako proiektzioa	22	32.688	24	41.184
Elkarteekiko hitzarmenak	2	244.600	2	222.422
Zinema euskaraz eta Zinema streaming	1	1.098.980	1	723.320
Zinemaldia	1	1.000.000	1	1.000.000
Filmategia	1	720.000	1	580.000
GUZTIRA	98	5.993.981	133	6.484.710

2.2.2. Liburua

Sektorea. **Industrialki finkatzeko bidean**

Euskal Autonomia Erkidegoko argitalpen-industria ehunetik gora enpresa pribatuk osatzen dute eta bostehunen bat enplegu finko sortzen dituzte, Euskadiko Editoreen Elkarteak emandako azkeneko datuen arabera. Sormen handiko sektorea da; eragile kopuruaren egonkortasuna eta egituraren hauskortasuna ditu ezaugarri nagusiak.

2009an, sektore honen adierazle gehienek beheranzko joera erakusten dute ekoizpenari (tituluak eta batez besteko ale kopurua), salmentei eta fakturazioari dagokienez. Aipatu beharra dago joera hori ez dela euskal argitalpen-industrian bakarrik gertatzen; ekonomiaren egoera orokorraren eta, horrexegatik, azkeneko urte hauetan berriro argitaletxera itzultzen diren liburu kopuru nabarmenen ondorioa da, alde batetik, eta mundu digitalaren eraginak sortzen dituen zalantzen ondorioa, bestetik. Salmenta-kanal nagusia liburu-dendak dira, eta Autonomia Erkidegoa bera da euskal liburuaren berezko merkatua (argitaratutako hamar liburutik ia sei).

Programak. **Euskal literatura-sorkuntza babestea**

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak azkeneko bi urte hauetan egin duen politikan badira berrikuntza batzuk, euskal literatura-sorkuntza sustatzeko eta argitalpen-industria indartzeko konpromiso garbi bati eutsiz betiere.

2010. urtean, gaztelaniazko literaturazko **argitalpenei** ere laguntzak ematea izan da, euskarazko literatura-argitalpenei ematen zaien laguntza urritu gabe. 2010ean 46 argitalpen proiekturi eman zaie laguntza (27 euskaraz eta 19 gaztelaniaz); 2009an 26ri eman zitzaizen (euskaraz bakarrik).

Euskal liburuaren **itzulpenerako** ere ematen ditu laguntzak Kultura Sailak, literatur lanak itzultzeko, laginak itzultzeko, formazio-jardueretarako eta Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoan sustapena egiteko laguntza-lerroak baititu. Era honetako laguntzei dagokienez, 2009an 31 proiekturi laguntzetik 2010ean 47 proiekturi laguntzera iritsi da.

Liburuaren sustapenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan liburu-azokak, kongresuak, hitzaldi-zikloak eta liburuaren sustapenerako eta zabalkunderako kultura-jarduerak antolatzeko eta haietan parte hartzeko diru-laguntzak emanez, liburua –kulturaren zabalkunderako ezinbesteko tresna denez– herritarrengana hurbiltzen lagunduko duten ekitaldiak antolatzeko ahaleginei lagundu nahi zaie. 2009an eta 2010ean liburuaren sustapena egiteko hamaika proiekturi eman zaie laguntza, bost proiekturi lehenengoan eta seiari bigarrean.



2009an eta 2010ean Literaturako Euskadi Sariak irabazitakoen zerrenda

Modalitatea	2009		2010	
	Saritua	Diru kopurua €	Saritua	Diru kopurua €
Literatura euskaraz	Xabier Lete <i>Eguzkiaren esku izoztuak</i>	18.000	Fermin Etxegoien <i>Autokarabana</i>	18.000
Literatura gaztelaniaz	Luisa Etxenike <i>El ángulo ciego</i>	18.000	José Fernández de la Sota <i>Vacilación</i>	18.000
Haur eta gazte literatura euskaraz	Rubén Ruiz <i>Anekdotak</i>	18.000	Patxi Zubizarreta <i>Xia Tenzinen bidaia miresgarria.</i>	18.000
Haur eta gazte literatura gaztelaniaz	(ez zegoen)	–	Hutsik	–
Euskarazko Itzulpena	Antton Olano <i>Ilargi-harria</i>	18.000	Jesus Mari Mendizabal <i>Eguzki kolpea</i>	18.000
Literatur lan baten ilustrazioa	Elena Odriozola <i>Aplastamiento de gotas</i>	18.000	Jokin Mitxelena <i>Ipuin-kontalariaren lapikoa</i>	18.000
Saiakera euskaraz	(ez zegoen)	–	Joxe Azurmendi <i>Azken egunak Gandiagarekin</i>	18.000
Saiakera gaztelaniaz	(ez zegoen)	–	Miguel Sánchez-Ostiz <i>Sin tiempo que perder</i>	18.000
GUZTIRA		90.000		126.000

Literatur sorkuntza bultzatzeko tresna **Literaturako Euskadi Sariak** dira; 2010ean modalitate berri batzuk sartu dira sari horietan: saiakera euskaraz eta gaztelaniaz, haur eta gazte literatura gaztelaniaz eta ilustrazioa. Sari horietarako diru-hornidura 18.000 euro gordinetara da modalitate bakoitzean. Sariak, euskarazko itzulpeneko modalitatean salbu, gainerako guztietan beste 4.000 euro gordinetara bat jasotzeko aukera eskaintzen du, saritutako obra jatorrizkoa ez den beste hizkuntza batean argitaratzeko kontratua sinatu ondoren. 2009an 90.000 € banatu ziren saritan eta 2010ean, modalitate berriak sartu zirenez, 144.000 € izendatu ziren saritarako. Diru partida horri saritutako obrak itzultzeko hitzartutako kreditu-erreserba gehitu behar zaie: 16.000 € 2009an eta 28.000 2010ean.

Kanpoan sustatzea ere garrantzi handiko helburua da Eusko Jaurlaritzak lortu nahi duen euskal literaturaren sustapena lortzeko, eta horrexegatik eman dira laguntzak erreferentziazkoak ziren zenbait feriatan euskal liburua egon zedin, hala nola Guadalajarako azokan (Mexiko); Frankfurtoko liburu-azokan; Boloniako Haurrentzako Liburu Azokan eta Nazioarteko Liber Liburu Azokan.

Bai kanporako proiektzioa, bai sektore honi laguntzeko beste ekimen batzuk ere, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak sektore honetako elkarrekin burutzen duen **lankidetz**a estu baten bitartez bideratzen dira. Hala, 2009an Zuzendaritza honekin hitzarmen bat zuten elkarrekin gainera (Euskadiko Liburu Ganbara, Euskadiko Editoreen Elkarte, Euskal Editoreen Elkarte, Euskal Idazleen Elkarte, Gerediaga Elkarte), 2010ean liburu-ilustrazioaren sektorea sartu da, berorren ordezkaria Euskal Irudigileen Elkarte Profesionala delarik. Oro bat hartuta, 2009an 608.000 € eta 2010ean 628.718 € bideratu ziren hitzarmen hauetarako.

Liburuaren sektorerako laguntzen laburpen-koadroa

LIBURUA	2009		2010	
	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €
Euskarazko argitalpenentzako laguntzak	26	514.000	27	455.404
Gaztelaniazko argitalpenentzako laguntzak			19	150.000
Euskal liburuaren itzulpena	31	65.898	47	110.750
Liburuaren sustapena	5	48.436	6	60.000
Euskadi Literatura Sariak	5	90.000	7	126.000
Sektoreetako elkarrekin hitzarmenak	5	608.000	6	628.718
GUZTIRA	72	1.326.334	112	1.530.872

2.2.3. Antzerkia

Sektorea. **Merkatu urri bat izatearen zailtasunak**

Kulturaren Euskal Behatokiak argitaratutako datuek erakusten dutenez, 114 programatzailek (76 antzoki eta 38 antzerki-jaialdi) eta berrogeita hamarren bat konpainiak osatzen dute antzerkiaren sektorea; antzerki-talde hauek askok hamar urtetik gora eman dituzte lanean; sektore honen merkatua aski urria da, ordea, eta, horregatik, emanaldien ia erdiak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiten dituzte.

Zabalkundeari dagokionez, esan beharra dago bost antzoki garrantzitsuenen artean kontzentratzen dela Euskal Autonomia Erkidegoan dauden 76 antzokietan egiten diren emanaldietan banatzen diren sarrerengatiko irabazien %70.

Berez ere oso merkatu urria duen eta finantzaketa publikoaren oso mende dagoen sektorea izateaz gainera, gaur egun beherakada nabarmena ari da gertatzen kontratazioan, Euskal Autonomia Erkidegoan baino gehiago behar bada kanpoan, krisi ekonomikoaren ondorioz.

Programak. **Balio-kate osoaren arreta hartzea**

Sektore honen errealitateak, erronka handiak baititu ekimenen iraunkortasunari dagokionez eta finantzaketa publikoaren oso mende baitago, 2009an eta 2010ean, formaziotik hasi eta banaketaraino, balio-kate osoa kontuan hartuko zuen babes-politika bat egitera eraman zuen Eusko Jaurlaritzak.

Formazioari dagokionez, sektore honetako profesionalentzat formazio osoko ikastaroak eskaintzen dituzten antzerki-eskoletarako laguntzak eman ziren, alde batetik (sei proiektu 2009an eta bost 2010ean) eta, bestetik, alor berezi bateko antzerkiko profesionalak prestatzeko ikastaroak antolatzen dituzten erakundeei laguntzeko ere bai (hiru proiektu 2009an eta bi proiektu 2010ean), Euskal Autonomia Erkidegoan kalitate oneko formazioa izango dela bermatzeko.

Sorkuntzarako laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntzetan testu originalak sortzeko (hamabi proiektu bi urteetan) eta produktiorako, bietarako izan dira. Produktiorako laguntza hauek hiru helburu izan dituzte: konpainia sortu berriek antzerki-produkzioak egin ditzaten laguntzea, produkzio berriekin produktu berriak izan daitezen laguntzea eta herri honetan finkatuen dauden antzerki-konpainien antzerkigintzak iraun dezan laguntzea.

Sorkuntzarako laguntzaren marko honetan jarraituz, 2010ean Egoitza Programa bat bultzatu da; programa hau Euskal Autonomia Erkidegoko antzoki publikoetan (Amorebieta-Etxanon eta Zigoitian) antzerki-konpainien egoitzak kokatzeko bi esperientzia pilotutan zentratu da, oraingoz, gerora sektore publikoaren eta pribatuaren artean arte eszenikoak sustatzeko elkarlana ahalbidetuko duen programa egonkor bat eratzeko asmoz.

Zabalkunderako ere eman ditu laguntzak Kultura Sustatzeko Zuzendaritza honek: diru-laguntzak izan dira euskal antzerki-konpainiek Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiten dituzten itzuli eta emanaldietarako. Produzioen ustiapen ekonomikoan oreka pixka bat lortuko bada, ezinbestekoa da, izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan urtero egiten diren arte eszenikoen bi ferien alde –Leioako Umore Azoka eta de Donostiako dFeria– apustu egitea eta, urtero baita ere, euskal antzerkia erakusteko plataformak antolatzea Espainiako estatuan hitzarmenak sinatu diren feria eta jaialdietan (Tàrregako Fira, Valladolideko TAC, Valentziako Contaria, Huescako antzerki eta dantza feria eta Lleidako Feria de Titelles).

Eta, azkenik, aipatu beharra dago orobat, egin den politikaren helburua antzerkiaren sektorea sendotzea eta haztea izan dela, eta horretarako **elkarlanerako** hitzarmenak daudela sektore honetako hiru elkarterekin: Biargi (2011n), Eskena eta EAB.

Antzerkiaren sektorerako laguntzen laburpen-koadroa

	2009		2010	
	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €
Antzerkiko profesionalen formazio osoa	6	160.754	5	125.057
Alor berezietako formazio-ekimenak	3	9.423	2	8.000
Antzerki-testu berriak sortzea euskaraz	3	24.000	3	21.000
Antzerki-testu berriak sortzea gaztelaniaz	3	24.000	3	21.000
Konpainia sortu berrien produzioak	3	60.000	3	40.000
Produzioak egitea	10	325.000	7	284.734
Antzerki-konpainia finkatuen jarduera	4	535.000	4	490.266
Egoitza programa			2	50.000
Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpo antzerki-itzuliak egitea	28	141.203	21	88.604
Antzerki-denboraldien sustapena	2	18.340	1	10.000
Sektoreko elkarrekin hitzarmenak	2	185.000	2	223.910
GUZTIRA	64	1.482.720	53	1.362.571

Antzerkiaren sektorerako bideratzen diren laguntza-lerroez gainera Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak baditu programa bereziak barneko zirkuituak sendotzeko, hala nola **Euskadiko Antzoki Sarea**, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Foru Aldundietako Kultura Sailek eta antzokien jabe diren Udalek osatzen dutena. SAREAk, erakunde arteko lan eremua den aldetik, bere helburu nagusien artean hartua du, eskura dauden giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak optimizatzea ahalbideratzen duten arrazionaltasuneko printzipioetan oinarriturik, arte eszenikoen alorrean ikusleria sortzeko eta formatzeko bidea erraztuko duen kalitate oneko programazio iraunkor bat sustatzea. Kultura Sailak 200.000 €-ko aurrekontua izendatu zuen SAREArako 2009an eta 177.200 €-ko aurrekontua 2010ean.

Kultura Bultzatuz jarduerari-ildo transbertsala deskribatzerakoan aurreratu den bezala, **Antzerkia Bultzatuz** programaren barruan laguntzak eman dira sektore honetarako, gaur egun ikuskizunen kontratazioan gertatzen ari den momentuko atzerakada egoerari, erantzun bat emateko, horretarako antzokiko antzerki kontratazio berriak sortuz 2009an eta kaleko antzerki kontratazioak 2010ean. Programa honetarako bideratutako aurrekontua 274.619 €-koa izan zen 2009an eta 73.666 €-koa 2010ean.

2.2.4. **Dantza**

Sektorea. Sormena eta ahultasuna

Euskal Autonomia Erkidegoko dantzaren sektorearen ezaugarriak dira urteko ekitaldi bakoitzean sormen handia erakustea, alde batetik, eta bere egituraren hauskortasuna, bestetik. Sektore honetako jardueraren protagonistak hogeiren bat konpainia edo dantza-munduko produkzio-ekimen profesional dira (18, Kulturaren Euskal Behatokiak argitaratutako datuen arabera); tamaina txikikoak dira denak. Horrez gainera, konpainia horiek finantzaketarekiko duten mendekotasun handia ere kontuan hartu behar da, beren diru sarreraren %34 diru-laguntza publikoetatik baitatoz. Laguntza honen arazoia sektore honen premia bereziak dira, ahalmen handia duela erakusten baitu, baina ez da gauza oraindik hauskortasun eta ahultasun hori gainditzeko.

Programak. Sektorearen aldeko apustua

Dantza **sustatzeko laguntzetarako** deia garrantzi handiko erreferentzia izaten da urtero sektore honetan. Laguntza modu bat baino gehiago dago:

- Koreografia berriak sortzeko laguntzak: koreografo gazteen eskura pieza laburrak sortzeko laguntzak jarritz sorkuntza bultzatzeko. Kultura Sailak aspalditik ematen duen laguntza bat da; 'Dantzan Bilaka' programaren oinarria da.
- Konpainiak sendotzea: laguntza-deialdi hau 2009an hasi zen egiten; produkzio-proiektuak edo konpainia profesionalen itzuliak finkatzeko prozesuei laguntzea du helburua, konpainia edo proiektu horien ibilbideari dagozkion baldintza jakin batzuk betetzen badira eta lehiaketan parte hartzen duen konpainiak proiektuan



- beste erakunde batzuek ere parte hartzeko bidea errazten duten beste dantza proiektu batzuetan –etengabeko formazioan eta sensibilizazioan, adibidez– parte hartzen duela frogatzen badu, betiere.
- Dantza-obrak produzitzea: laguntza mota honen bidez hogeit hamar obra berriri eman zaie laguntza 2009an eta 2010ean. Azkeneko urte hauetan begien bistakoa izan da euskal produkzioek kalitatean egin duten hobekuntza.
 - Dantza-itzuliak: azkeneko urte hauetan Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoan dantza-itzuliak egiteko zortzi proiekturi eman zaie laguntza.
 - Etengabeko prestakuntzako eta jarduera profesionalari laguntzeko Programak: profesionalak, produkzioari ematen zaizkion laguntzez gainera, bestelako osagarriko laguntza batzuk izateko egindako eskariari erantzuteko laguntza modu batzuk dira. Kultura Sail honen helburuetako bat sektore honen egituraketa indartzea eta alor bakoitzeko enpresen, elkarten edo pertsonen arteko elkarlaneko politikak bultzatzea da. Dantzaren sektoreari dagokionez, 2009. urtean zehar zenbait laguntza izendun eman zitzaizkien Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarteari (EHDPE), Euskal Dantzarien Biltzarrari (EDB) eta Dantzas Elkarteari ('Dantzas' dantza-konpainia gazteari). 2010erako, laguntza hauek elkar estal ez dezaten eta laguntzak emateko sistema hobetzeko asmoz, lerro bakarrean bateratu dira etengabeko prestakuntzako jarduerak eta jarduera profesionalarentzako laguntzak.

Kultura Sailak, sektoreari emandako laguntza horiez gainera, aurreko urteetan bezala, dantza zabaltzeko eta ikertze-ko zenbait programa bultzatu ditu, bakoitza bere helburu eta irismenarekin; hauek izan dira, zehazki:

2009an eta 2010ean **Dantza Garaikidearen Zirkuituaren** bosgarren eta seigarren edizioak gertatu ziren; 170.000 € eta 180.000 €-ko aurrekontuak izan zituzten, hurrenez hurren; zirkuitu honen helburu nagusiak antzokien dantza-programazioa indartzea, dantza-zikloak eta denboraldiak finkatzea eta ekitaldi horietan euskal konpainien presentzia handiagotzea dira. Programa hau SAREA antzoki publikoen euskal sarearekin, Foru Aldundiekin, Udalekin eta obra horiek hartzen dituzten gainerako erakundeekin elkarlanean betetzen da. Bi edizio hauetan programazio aldia urte osoan zehar luzatu da lehendabiziko aldiz. Datuek argi erakusten dute zirkuitu honek izan duen arrakasta; hain zuzen ere 2009an 15 antzokik eta 22 konpainiak hartu zuten parte; 24 ikuskari eskaini zituzten 59 emanalditan; kopuru horiek handiagoak izan dira 2010ean: 17 antzoki, 27 konpainia, 29 ikuskari eta 68 emanaldi. Zirkuitu honetan programatu diren euskal konpainien portzentajea, 2009an %53 zena, %69 izatera iritsi da 2010ean.

Beste alde batetik, **‘dFeria-Dantzan’**, Kultura Sailak eta Donostia Kulturak elkarlanean gauzatzen duten programa berezi bat da; euskal dantza-produkzioek Donostiako udalak hiri horretan urtero antolatzen duen arte eszenikoan ferian presentzia handiagoa izatea du helburua. Donostiako Feria hori lekurik hoberena bilakatu da, gonbidatuta etortzen diren programatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko urteko dantza-produkzioaren erakusgarri zehatzena ezagutzeko aukera izan dezaten. Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak 25.000 € xedatu zituen programa honetarako 2009an eta 20.000 € 2010ean.

Dantzan Bilakak bere laugarren eta bosgarren edizioak bete zituen 2009an eta 2010ean, sortzaileei beren koreografia-proposamenak garatzean sortzen zitzaizkien zalantzei eta kezkei buruz hitz eta gogoeta egiteko topagune bat eskainiz. Jarduera hau, trebakuntza-tailerraren eta ikerketaren artean kokatzen dena, sortutako koreografiak jendaurrean aurkeztuz burutzen da. Programa honetarako bideratutako aurrekontua 42.000 €-koa izan zen 2009an eta 44.000 €-koa 2010ean.

Urte hauetan garatu diren zabalkunde programen artean aipatu beharra dago **Euskal Eszena** ere, euskal sorkuntza munduan ezagutzera emateko, kultura-trukea bultzatzeko eta arte eszenikoentzat, dantzarentzat besteren artean, merkatu berriak sortzeko asmatua.

Euskal dantza tradizionalari dagokionez, 2009an eta 2010ean ikerketa bat burutu da, Eusko Ikaskuntzarekin batera, Euskadin dantza tradizionalari buruz dauden artxibategien eta dokumentuen mapa bat egiteko. Lan horrek gerora kultura-ondare garrantzitsu hori kontserbatzeko hartu behar diren erabakiak hartzeko oinarria izan behar du. Nola-nahi ere, 2009az gero, Eresbil Euskal Musikaren Artxibategia alor honetako materialak eta dokumentuak gordetze-ko eginkizuna betetzen ari da, behin behinean.

Dantzaren sektorerako laguntzen laburpen-koadroa

	2009		2010	
	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €
Koreografia-sorkuntza	10	30.000	9	27.000
Konpainiak sendotzea	2	88.000	2	80.000
Dantza-obrak produzitzea	9	132.000	11	143.000
Dantza-itzuliak	3	21.000	5	30.000
Prestakuntza-jarduerak	7	80.000		
Jarduera profesionalari laguntzea	2	14.000		
Prestakuntza-jarduerak eta jarduera profesionalari laguntzea			11	85.000
Dantza Garaikidearen Zirkuitua	13	170.000	18	180.000
dFeria-Dantzan	1	25.000		20.000
GUZTIRA	47	560.000	56	565.000

EUSKADIKO SOINUAK
www.euskadikosoinuak.com



16 setembre **23:30h.** JAZZ CAVA
DEDIEGO BROTHERS

www.euskadikosoinuak.com

17 setembre **03:00h.** SUCRE I
VENDETTA

www.euskadikosoinuak.com

2.2.5. Musika

Sektorea. **Modu egituratuan lan egiteko gaitasuna**

Musikaren sektorea da Euskal Autonomia Erkidegoan helburu komunak lortzeko elkarlaneko estrategiak garatzeko gaitasun handiena erakutsi duten kulturako sektoreetako bat. Hain zuzen ere, sektore honen ezaugarri nagusietako bat sektore barruko asoziazionismoa da, sektore honetako alor guztietan, bai enpresarien artean bai zaleen artean, ikusten den elkarte ugartasunak erakusten duen bezala: Abesbatzen federazioa, musika-tresna tradizionalen elkarteak (trikitulariak, txistulariak, txalapartariak, albokariak...), musikagileenak, disko-etxeenak, antolatzaileenak, musika-aretoenak, operaren lagunak, eta abar.

Asoziazionismo maila horrek asko errazten du sektore horren eta erakunde publikoen arteko elkarrikeria eta sektore hau eta Euskal Autonomia Erkidegoko musikaren sustapena are gehiago indartzeko elkarlaneko proiektuak sortzea.

Programak. **Erakunde publikoen eta pribatuen elkarlanerako marko bat**

Kultura Sail honek musikaren sektorean dituen ekimenen artean, beren garrantziagatik, tamainagatik edo izan dezaketen eraginagatik Euskal Autonomia Erkidegoko musika-jardueraren oinarri-oinarrizko erreferentziak diren proiektuak nabarmendu behar dira, lehenik eta behin. Beren aurrekontuen muntagatik, hain zuzen, erakunde bat baino gehiagoren elkarlana izaten duten proiektuak dira, batez ere; horien artean nabarmentzekoak dira hauek: Orquesta Sinfónica de Euskadi/Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Joven Orquesta de Euskal Herria/Euskal Herriko Gazte Orkestra; Musika Hamabostaldia –musika klasikoaren alorrean erreferentziazkoa den musikaldietako bat–, ABAO-OLBE (Operaren Lagunen Bilboko Elkarte) erakundearen opera-denboraldia eta Gasteizko Jazzaldia. Ondarearen ikuspegitik, hala ere, ERESBIL Euskal Musika Artxibategiaren lana aipatu eta goretzi beharra dago.

The graphic is set against a light green background. On the left, there are two vertical concert posters. The first poster is for 'BIDE ERTZEAN' on September 18th at 13:00h at SLUB MV (Socor). The second poster is for 'IÑAKI PLAZA y ION GARMENDIA' on September 18th at 20:15h at Plaça dels Màrtirs. Both posters feature a 'DIVE' logo and the website 'www.euskadikosoinuak.com'. In the center, there are several logos of partner organizations: EUSKADIKO SOINUAK, EUSKAL GOBIERNUA, EUSKAL LEGIARTEA, EUSKAL KULTURA SAILA, and others. Below these logos is a stylized black character holding a large speaker. On the right, there is a large, detailed image of a speaker. At the bottom, there are several blue arrows pointing to the right.

«Herri musikaren» alorrean, Kultura Sailaren eta sektore honetako enpresa-elkarteen arteko elkarlanerako tresna nagusia **Euskadiko Soinuak** programa da; hamar urte badira abian dela, eta helburu hauek ditu, besteren artean: Euskadin sortzen den musikari laguntzea eta sustapena egitea; alor honetako enpresa- eta industria-sareari laguntzea eta indartzea; marka bateratu bat erabiliz euskal musika-jarduera sustatzea eta sektore honetako eragileen artean etengabeko eztabaida eta elkarlana bultzatzea.

2009 eta 2010 urteetan, Euskadiko Soinuak stand bat izan du, Basque Music-Euskadiko Soinuak marka erabiliz, zenbait musika-feria profesioaletan (Vic-eko Mercat de Música Viva, Womex, Monkey week, Midem), eta beste ekimen batzuk ere bideratu ditu, hala nola Euskadi-Akitalia arteko lehenengo musika-topaketa profesionala, Kataluniarekiko musika-trukeak, sustapen-kanpainak, «oparitu musika» adibidez, sektoreko elkarteek antolatutako jardunaldi profesioalei laguntzea eta haietan parte hartzea, eta abar.

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako zuzeneko emankizunetarako musika-areto pribatuen Elkartearekin –Kultura Live–, Kultura Bultzatuz programa transbertsalaren Testuinguruan **Zuzen-Zuzenean** musika-zirkuitua garatzeko finkatu den elkarlana da Kultura Sailaren eta sektore pribatuaren arteko gogo-kidetasunaren beste adibide bat. Zirkuitu honen bitartez, zuzeneko musika-jarduerari laguntza zuzena eman eta helburu hauek lortzeko lan egin nahi da: herri musika kulturgintzaren eta jarduera ekonomikoaren garrantzi handiko alorra dela aitortu eta alor hori indartzea; euskal musikarien eta musika-taldeen jarduera onartu eta sustatzea; eta musika-enpresen jarduerari laguntzea: zuzeneko musika-emanaldiak egiten dituzten areto pribatuak; management, ordezkariek eta abar.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak 10.253.546 € xedatu zituen guztira programa honetarako 2009an eta 9.966.390 € 2010ean. Kontuan hartu behar da Euskadiko Orkestra Sinfonikoari emandako laguntzak programa hauetarako xedatutako aurrekontu osoaren %77-80 hartzen duela gutxi gorabehera.

Sektore honen asoziazio-egituraketak giro egokia sortu du erakunde publikoen eta pribatuen arteko elkarlana bultzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten den musika-jardueraren oinarriko erreferentziazkoak diren proiektuak finantzatzeaz gainera, laguntza-bide berezien bitartez egituratzen baitira. Horrela, elkarlan horren barruan, sektore honen egituratzea are gehiago sendotzeko asmoz, Kultura Sail honek **zuzeneko laguntzak edo laguntza izendunak** bideratu ditu elkarte hauentzat: Euprel (Euskal Promotoreen Elkarte); Euskal Herriko Diskoetxeen Elkarte; Kultura Live (zuzeneko musika duten areto pribatuen elkarte); ACVEME (musikagileen elkarte); Euskal Herriko Trikitixa Elkarte eta Euskal Herriko Abesbatzen Elkarte.

Zuzeneko laguntza hauekin edo laguntza izendun hauekin batera, lehendik sektore honentzat ematen ziren zenbait **laguntza** ematen jarraitu du Kultura Sustatzeko Zuzendaritza honek (musikagintza, partitura-argitalpena, produkzioa; itzuliak, musika zabaltzeko enpresa-proiektuak eta feria profesioaletara joatea); laguntza hauek, lehen aipatutakoekin batuta, 1,3 milioi euroko aurrekontua esan nahi dute, 2009 eta 2010 urteetan, 169 proiektutarako. Modalitate bakoitzak bere helburuak eta bere hartzaileak ditu; hartzaile hauen artean badira artistak, zuzeneko laguntzak hartzen dituztenak, zein sektore honetako industria-ehuna osatzen duten elkarteak eta enpresak ere.

Musikaren sektorerako laguntzen laburpen-koadroa

	2009		2010	
	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €
Musika-sorkuntza	10	28.500	16	34.000
Partitura-argitalpen inprimatua	6	30.000	5	30.000
Musika-produkzioa	19	105.500	19	69.000
Musika-itzuliak	29	168.400	33	170.410
Musika-zabalkunderako enpresa-proiektuak	4	54.500	11	100.000
Musika-ferietan parte hartzea			5	4.590
Elkarteentzako laguntzak	6	251.400	6	260.562
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa	1	8.036.000	1	7.968.500
Euskal Herriko Gazte Orkestra	1	272.950	1	241.834
Musika Hamabostaldia	1	546.000	1	465.150
OLBEren opera-denboraldia	1	600.000	1	531.600
Gasteizko Jazzaldia	1	78.000	1	69.108
ERESBIL musika-artxibategia	1	286.589	1	253.918
GUZTIRA	80	10.457.839	95	10.198.672

2.2.6. Ikusmenezko arteak**Sektorea. Errealitate heterogeneo baten erretratua**

Ikusmenezko arteen sektorea eragileek eginkizun desberdinak dituzten sektore heterogeneo bat da. Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten ikusmenezko artearen diziplina desberdinetako artistak dira artearen panorama honetako ondasun garrantzitsuena; artista hauek ez dute sektore barneko erreferentziazko elkarerik. Aipatzekoa da Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultateak gaur egungo artearen munduan beren presentzia Euskal Autonomia Erkidegoaren mugetatik kanpora atera den artista-harrobi bat garatzeko jokatu duen papera.

Erakunde publikoek sustatutako produkzio-leku eta zentroek artearen sorkuntza-, esperimentazio- eta ikerketa-laborategiak izateko eginkizuna betetzen dute.



Merkatuari dagokionez, arte-galeriek erakunde publikoen diru-laguntzekiko mendekotasunik gabe beretzen dute beren eginkizuna, diru-laguntza horiek galerien diru-sarreraren %5 baizik ez baitira, izan ere, eta salmentetan oinarritzen dute beren jardunbidea, beren merkataritza-izaerari dagokion bezala.

Programak. **Aldeko testuinguru bat sortzen laguntzeko Programak berriro definitzea**

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak hainbat programa garatu ditu 2009. eta 2010. urteetan, ikusmenezko arteak sustatzeko asmoz. Programa horietako batzuk berriak dira, eta beste batzuetan hobekuntza batzuk egin dira, sektore honen premiei hobeto erantzuteko.

Berrikuntzen artean, 2010ean Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak **Eremuak programa** jarri zuen abian, gaur egungo artea sustatzeko eta zabaltzeko, eta 200.000 €-ko aurrekontua xedatu zuen programa honetarako. Programa honen helburua Euskadiko gaur egungo arteko jarduera desberdinen ikerketarako, garapenerako eta berrikuntzarako mesedegarria izango den testuinguru bat sortzea, indartzea eta agerraraztea da. Partaidetza, praktika eta egiletza artistiko orotara irekita dagoen programa bat da, eta gaur egungo artearen proposamen artistikoak, diskurtsoak eta Testuinguruak hartu eta sustatzeko helburua duen ekimen baten moduan agertzen da.

Beste berrikuntza bat orain arte bi urtez behingoak ziren **Gure Artea** sarien helburua, zentzua eta filosofia beste era batera formulatzea izan da. Eredu berri honetan, urtean hiru sari ematen dira, kategoria hauetan: artean izandako ibilbide osoari ematen zaion saria, sorkuntza-jarduerari ematen zaion saria, eragileek ikusmenezko arteen alorrean izandako jarduera aitortzeko saria. Sari hauen diru-hornidura 60.000 €-koa izan zen 2009an.

2000. urteaz gero urtero egiten den **ikusmenezko arteetarako laguntzetarako deialdiari** dagokionez, oinarritzko hiru alorrak mantendu dira, baina berrikuntza batzuk egin dira sorkuntzaren alorrean eta produkzioarean:

- **Formazioaren** alorra: artistek, komisarioek, kritikoeek formazio-jardueretan parte har dezaten diru-laguntzak eman dira, ikastaroak erkidego honetatik kanpo zirenean matrikulen, bidaien eta ostatuaren kostuak ordainduz.
- **Sustapenaren eta zabalkundearen** alorra: zenbait ekimenetarako laguntzak eman dira, gaur egungo artea zabaltzeko eta euskal artistak eta beren lanak ezagutarazteko asmoz, Euskadiko kultura-zentroetan gaur egungo arteko ekitaldiak antolatzeke eta haietan parte hartzeke, besteren artean; Euskadiko gaur egungo arteari buruzko sentsibilizazioa bultzatzeko jardunaldiak antolatzeke (topaketak, jardunaldiak, kongresuak, lantegiak, hitzaldiak), eta euskarri batzuetako argitalpenak egiteko.
- **Sorkuntzaren eta produkzioaren** alorra: obra-sorkuntzarako bideratu diren laguntzak dira. Produkzioaren alor honetan garrantzi handiko berrikuntza bat izan da 2010eko edizioan, kontzeptu berri bat sartu baita laguntzari dagokion diru-kopuruan: sortzailearen lana ordaintzea. Era horretan sortzaileek bere arte-proiektua gauzatzen inbertitutako lana ere kontuan hartzeke egiten zuten eskakizunari erantzun zaio.

2009. eta 2010. urteetan ikusmeneko arteen alorrean **kanpora begirako sustapenari** laguntzeko laguntzatarako deialdiak ere egin dira; bi ekimen izan dira, zentzu honetan: bat euskal eragileek gaur egungo arteari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko erakusketetan eta bestelako ekitaldietan parte har zezaten laguntzeko eta, bestea, galeriei gaur egungo arteko nazioarteko gerietan euskal artisten lanak eramanez parte har zezaten laguntzeko.

Beste alde batetik, Kultura Sailak beste erakunde batzuekin ere bideratu ditu **elkarlaneko proiektuak**, hemendik kanpoan euskal artearen sustapena egiteko. 2010ean horrelako bi proiektu gauzatu dira, zehazki esateko: Ibon Aramberri euskal artistaren atzera begirako erakusketa monografikoa Bartzelonako *Fundació Antoni Tàpies* erakundearen aretoetan eta *MUSAC* Gaztela eta Leongo Gaur Egungo Artearen Museoarekin elkarlanean *PRIMER PRO-FORMA 2010* proiektua, Txomin Badiola, Jon Mikel Euba eta Sergio Prego euskal artistek parte hartu dutena.

Ikusmeneko artearen sektorerako laguntzen laburpen-koadroa

	2009		2010	
	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €	Laguntza jaso duten proiektuak	Laguntza €
Formazioaren alorra	12	24.584	9	16.535
Sustapenaren eta zabalkundearen alorra	33	244.421	30	244.930
Sorkuntzaren eta produkzioaren alorra	27	169.986	25	170.000
nazioarteko	15	87.776	12	72.495
Gure Artea		60.000		
GUZTIRA	87	586.767	76	503.960

2.3. Lurraldekako jarduera-ildoak

Testuingurua. **Kulturan udala protagonista**

Udalak dira hurbiltasunezko kultura-politiken protagonista nagusiak. Tokian tokiko kultura-eragileekin egiten duten eguneroko lana eta kulturarako bidea eta kultura udal guztietara hurbiltzeko bidea errazten duten proposamenak garatzea aintzat hartu behar diren egitateak dira. Horrekin batera, beren jarduera-eremutzat Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriak dituzten ekimen publiko zein pribatuek aise gainditzen dituzte, eragin horretan, beren administrazio-mugak, eta aberastasun handia ekartzen dute udalerrri bakoitzaren beraren eta hori baino barruti zabalagoen kultura-garapenerako.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta udal-elkarteek egiten duten lana aintzat harturik, 2009. eta 2010. urteetan Kultura Sail honek eragile horiekiko elkarlana indartu du, kultura-ekimenak abiarazteko lanean.

Eskualdeetako eragilekiko elkarlan-politika hori udalei eta erakundeei zuzenean lagunduz ez ezik, aurreko ataletan aipatu diren programen bitartez ere gauzatu da; horren adibide argi bat nahi bada, Kultura Bultzatuz programa transbertsala izan daiteke bat. Azpimarratu beharra dago, orobat, tokian tokiko eragileek beste zenbait proiektutan, hala nola Sorkuntza Lantegietan edo antzerki konpainientzako Egoitzetan, izan duten parte hartzea. Era berean, Euskadiko Liburu Ganbarak, berari esleitutako diru-laguntza izendun baten bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalerritan antolatzen ditu Liburu-azokak.

Programak. **Tokian tokiko ekimenei laguntzea**

Tokian tokiko mailan lan egitea asko indartu da azkeneko urte hauetan programa desberdinen eraginez, tokian tokiko eragile publiko zein pribatuek proposatuta bideratutako jarduerari emandako laguntzei esker batez ere. Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak bi laguntza-bide eduki ditu tokian tokiko ekimenei laguntzeko: ikus-entzunezkoen, antzerkiaren, dantzaren eta musikaren alorretan antolatutako jaialdietarako, zikloetarako, lehiaketetarako laguntzak; eta zuzenean udalei (edo haien erakunde autonomoei) edo udalerriko erakundeei tokian tokiko proiektuei laguntzeko laguntza izendunak.

2 milioi euro bideratu dira guztira 2009an eta 2010ean udalen ekimenei laguntzeko; 1,33 milioi zuzeneko diru-laguntza izendunen bidez eta 675.000 € jaialdietarako deialdien bidez. 2009an 68 proiektu aurkeztu ziren 29 udalerritan eta 2010ean 73 proiekturi eman zaie laguntza, 32 udalerritan.

Udalerrientzako laguntzen laburpen-koadroa

Laguntza mota	2009			2010		
	Laguntza jaso duten proiektuak	Udallerriak	Laguntza €	Laguntza jaso duten proiektuak	Udallerriak	Laguntza €
Jaialdiak	51	24	350.000	54	27	325.000
Izenduna	17	9	662.000	19	11	663.112
GUZTIRA	68	29	1.012.000	73	32	988.112

OHARRA: Ez dago sartuta Donostiako Udalarri Donostia Kultura Hiriburua 2016 kontzeptupean emandako 418.431 €-ko laguntza izenduna.

Bi ildoak baturik, hiriburuak dira laguntzarik handiena hartu dutenak, 776.620 €, udalerrri ertainek 67.352 €-ko laguntzak jaso dituzte eta udalerrri txikiagoek 552.140 €.

Udalerrientzako laguntzen laburpen-koadroa udalerrriaren tamainaren arabera

Tamaina	Jaialdietarako laguntzak eta zuzenekoak-izendunak bateraturik		
	2009	2010	Total
20.000 biztanletik beherakoak	258.000	294.140	552.140
20.001 - 100.000 biztanle bitartekoak	356.000	315.352	671.352
100.000 biztanletik gorakoak (hiriburuak)	398.000	378.620	776.620
GUZTIRA	1.012.000	988.112	2.000.112

OHARRA: Ez dago sartuta Donostiako Udalarri Donostia Kultura Hiriburua 2016 kontzeptupean emandako 418.431 €-ko laguntza izenduna.

Laguntza-ildo hauen bitartez banatutako laguntzen ia erdiak Bizkaiko udalerrientzat izan dira. Gipuzkoan garatu diren proiektuetarako 712.900 €-ko diru-laguntzak izan dira bi urte horietan eta Araban garatu direntzat 262.560 €-ko diru-laguntzak.

Udalerrientzako laguntzen laburpen-koadroa lurraldez lurralde

Lurraldea	Jaialdietarako laguntzak eta zuzenekoak-izendunak bateraturik		
	2009	2010	Total
ARABA	133.000	129.560	262.560
BIZKAIA	501.000	523.652	1.024.652
GIPUZKOA	378.000	334.900	712.900
GUZTIRA	1.012.000	988.112	2.000.112

OHARRA: Ez dago sartuta Donostiako Udalarri Donostia Kultura Hiriburua 2016 kontzeptupean emandako 418.431 €-ko laguntza izenduna.



Jaialdietarako laguntzak

Ikus-entzunezkoen alorrean, antzerkiarenean, dantzarenean eta musikarenean jaialdiak, zikloak, lehiaketak antolatzeko diru-laguntzetarako deialdiak dira udalerrri gehienetara iritsi direnak. 2009an 24 udalerriri eman zitzaizkien laguntzak eta 2010ean 27 udalerriri, 350.000 € eta 325.000 € guztira, hurrenez hurren.

Udalerrientzat jaialdietarako laguntza gisa banatutako diru-laguntzak

UDALERRIA	Jaialdietarako laguntzak		
	2009	2010	Total
AMOREBIETA-ETXANO		8.800	8.800
AMURRIO	3.000	2.700	5.700
ANTZUOLA		4.500	4.500
ARRASATE	3.000	2.700	5.700
ARRIGORRIAGA	6.000	9.400	15.400
ASPARRENA-ARAIA	15.000	13.500	28.500
AZPEITIA	15.000	10.000	25.000
BARAKALDO	5.000	4.500	9.500
BASAURI	20.000	17.000	37.000
BERGARA		2.400	2.400
BILBAO	82.000	88.900	170.900
DEBA	6.000	5.400	11.400
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	21.000	15.300	36.300
DURANGO	4.000		4.000
EIBAR		3.000	3.000
ELORRIO	5.000	4.500	9.500
ESKORLATZA	5.000		5.000

.../...

UDALERRIA	Jaialdiarako laguntzak		
	2009	2010	Total
GALDAMES	4.000	3.600	7.600
IRUN	15.000	14.100	29.100
LEKEITIO	40.000	36.000	76.000
PORTUGALETE	8.000	7.200	15.200
SANTURTZI	13.000	13.000	26.000
SEGURA	4.000	3.600	7.600
SESTAO	6.000	4.000	10.000
SOPUERTA	6.000	4.000	10.000
SORALUZE	6.000	5.400	11.400
ZALDIBAR		3.600	3.600
ZUMARRAGA	3.000	2.700	5.700
VITORIA-GASTEIZ	55.000	35.200	90.200
GUZTIRA	350.000	325.000	675.000

Zuzeneko laguntza izendunak

Zuzeneko laguntza izendunei dagokienez, hamaika udalerrik jaso dituzte bi urte hauetan era honetako laguntzak beren proiektuetarako. 2009tik 2010era handitu egin da era honetako laguntzak hartu dituzten udalerrien eta proiektuen kopurua, Amorebieta-Etxanoko eta Zigoitiko antzerkirako egoitza-programarako laguntzak alor honetako laguntzen artean sartu direlako. Horrela, bada, ildo honetako laguntzak jaso dituzten proiektuen zerrenda hau da:

- **Amorebieta-Etxano**

Jarduera-ildo sektorialeki zegokien atalean esan den bezala, udalerrri honek antzerkirako egoitza-programan parte hartzen du eta 25.000 €-ko laguntza izenduna jaso zuen 2010ean, horren izenean.

- **Bilbao**

Udalak laguntza izendun bat jasotzen du urtero, ondoren aipatzen diren jaialdi hauek antolatzeko: BAD –Bilbo Antzerkia Dantza–, eta Zinebi, Bilboko Zine Dokumental eta Laburmetraiaren Nazioarteko Zinemaldia.

Horrez gainera, musikari dagokion ildo sektorialaren azalpenetan aipatu den bezala, OLBE, Operaren Lagunen Bilboko Elkartek laguntza izendunak jaso ditu urtero, bere operako denboraldia antolatzeko: 600.000 € 2009an eta 531.000 € 2010ean.

- **Donostia-San Sebastián**

Donostia Kulturak laguntza izendun bat jasotzen du urtero Jazzaldia eta Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea antolatzeko.

Sektorekako jarduera-ildoan azalpenetan aipatu den bezala, Musika Hamabostaldiari 546.000 €-ko laguntza eman zitzaion 2009an eta 465.000 €-koa 2010ean eta DFeriari 25.000 €-ko laguntza 2009an eta 20.000 €-koa 2010ean.

Esan beharra dago orobat Donostiako udalak 418.431 €-ko laguntza jaso zuela 2016ko Europako Kulturaren Hiriburu izateko hautagaitzari laguntzeko

- **Durango**

Gerediaga Elkartek laguntza izendun bat jasotzen du urtero, Durangoko Euskal Liburuaren eta Diskoaren Azoka antolatzeko.

- **Eibar**

UNI Elkartek laguntza izendun bat jasotzen du urtero Eibarko Antzerki Jardunaldiak eta Debagoieneko eskola arteko antzerki lehiaketa antolatzeko.

- **Getxo**

Kultura Aretoak laguntza izendun bat jasotzen du urtero Jazzaldia, GetxoFolk, Antzerki Erakusketa, Getxoarte eta Komikiaren Aretoa antolatzeko.

- **Leioa**

Udaleko Kultura Sailak laguntza izendun bat jasotzen du urtero Umore Azoka, Kaleko umore-artisten jaialdia antolatzeko.

- **Portugalete**

Elai Alai kultura elkarteak laguntza izendun bat jasotzen du urtero Nazioarteko Folklore Jaialdia antolatzeko.

- **Tolosa**

Tolosako Ekinbide Etxeak laguntza izendun bat jasotzen du urtero Titirijai, Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia eta Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa antolatzeko.

- **Vitoria-Gasteiz**

Kultura Sailak laguntza izendun bat jasotzen du urtero Kaldearte –kaleko arteen jaialdia– eta Nazioarteko Antzerki Jaialdia antolatzeko.

Horrez gainera, sektorekako jarduera-ildoen azalpenetan aipatu den bezala, Gasteizko Jazzaldia Elkarteak zuzeneko laguntza izendun bat jasotzen du urtero Jazzaldia antolatzeko: 78.000 € 2009an eta 69.108 2010ean.

- **Zigoitia**

Jarduera-ildo sektorialeiei zegokien atalean esan den bezala, udalerrri honek antzerkirako egoitza-programan parte hartzen du, eta horren izenean 25.000 €-ko laguntza izenduna jaso zuen 2010ean.

Udalerrientzat banatutako zuzeneko diru-laguntza izendunen laburpen-koadroa

UDALERRIA	Zuzeneko laguntza izendunak		
	2009	2010	Guztira
AMOREBIETA-ETXANO		25.000	25.000
BILBAO	60.000	79.740	139.740
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	120.000	106.320	226.320
DURANGO	70.000	62.020	132.020
EIBAR	40.000	35.440	75.440
GETXO	70.000	62.020	132.020
LEIOA	42.000	37.212	79.212
PORTUGALETE	60.000	53.160	113.160
TOLOSA	140.000	124.040	264.040
ZIGOITIA		25.000	25.000
VITORIA-GASTEIZ	60.000	53.160	113.160
GUZTIRA	662.000	663.112	1.325.112

* Ez dago sartuta Donostiako Udalarri Donostia Kultura Hiriburua 2016 kontzeptupean emandako 418.431 €-ko laguntza izenduna.

Kulturarako azpiegiturak hobetzeko laguntzak

Orain arte aipatu diren bi laguntza-ildo nagusien ondoan, jaialdietarako laguntzen eta zuzeneko laguntza izenduen ondoan, 2009-2010. urteetan Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak kulturarako azpiegiturak hobetzeko laguntzak ere eman ditu, lau udalerritarako:

- Ermua: herri honetako Cinema Teatro antzokia birgaitzeko hiru urteko diru-laguntza bat.
- Gernika: behinolako Astra Unceta arma-fabrika Kulturako Sorkuntza Lantegi gisa erabiltzeko birgaitzeko laguntzak.
- Tolosa: bi urteko diru-laguntza bat Tolosa Puppet International Centre, TOPIC sortzeko.
- Basauri: Social Antzokia birgaitzeko diru-laguntza bat.

3. **Etorkizuneko erronkak**

2011an gauzatzen hasi zen Kulturen aldeko Herritar Kontratuak xedatzen duen bezala, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak herritarrak jartzen ditu kultura-politikaren ardatzean. Hori da datozen urteetarako kultura-politikaren oinarri-oinarrizko tresna; ekimenaren ardatz gisa herritarra jartzeaz gainera, bereziki azpimarratu nahi ditu sormena eta kulturazko edukien industria kulturaren garapenaren eragile gisa, horretarako erakundeen arteko ehuna hobetuz eta kalitate oneko edukiak eta zerbitzuak eskainiz, eta parte-hartze eraginkorraren bidez gizartean zabalkunde handiagoa lortuz.

Azkeneko bi urte hauetan, paradigma berrien arabera, sektorializazioa gainditu eta erronka transbertsalei erantzuten dien kultura-politika baten oinarriak jarri dira. Lan-formula berri hau finkatzea, beraz, garrantzi handiko erronka, eta ezinbestekoa, da Kulturen Aldeko Herritar Kontratuaren planteamenduen arabera.

Horretarako, hain zuzen, datozen urteotan finkatu eta indartu behar diren lan transbertsalerako ildoak bultzatu dira. Ildo horien artean bereziki esanguratsua da Sorkuntza Lantegien programa, Euskal Autonomia Erkidegoko kulturen garapenaren eragile nagusietako batzuek bertako sortzaileak direlako uste osoan oinarrituta sorkuntzari sostengua ematera orientatzen baititu kultura-politikak. Programa hori sustatzea eta finkatzea da datozen urteotarako lehentasunetako bat, funtzionatzen ari den lehenengo hilabete hauetan izan duen bilakaera zuzenean oinarrituta. Zentzu honetan, bada, Zuzendaritza honek egiten duen aukera azpiegituren alde apustua egitea baino areago bideratzen da edukiei, sormenari sostengu handiagoa ematera.

Sormenaren sostenguekin batera, hala ere, kulturaren kontsumoa bultzatuko duen sistema bat eraiki behar da, alor honetako jarduera bultzatuz eskaintza erakargarriak eginez, arte eszenikoen eta musikaren alorrean zuzeneko ikuskariak sustatzeko «Kultura Bultzatuz» programarekin eta dagoeneko finkatuta dagoen eta hazteko gaitasun



nabarmena duen Kultura Bonuarekin egiten hasia den bezala. Kultura-kontsumoa biziberritzeko beste proiektu estrategiko bat ere prestatzen ari da dagoeneko: KulturKlub. Une honetan definitzen ari den Kultura Klub honek klubeko kideen artean kultura-kontsumorako aukera eta erraztasun berriak sortzea izango du helburua. Beste leku batzuetan berebiziko arrakasta izan duen esperientzia bat da, Katalunian adibidez.

Aspalditik mamitzen eta egituratzen ari diren zenbait proiektu handi garatuko dira datozen urte hauetan. Proiektu horietan, eragiten duen proiektioagatik, Donostia 2016 Europako Kulturaren Hiriburu izatea izango da, seguru asko, garrantzi handiena izango duena. Aparteko aukera izango da, bai ekipamendu eta programa berriei estrategia orokorrean kulturari zentraltasun handiagoa emateko bai kanpora begira euskal kulturari lotutako irudi bat proiektatzeko. Proiektu hau parte-hartze handia eta askotarikoa izan zuen prozesu batetik abiatuta definitu zen, giza eskubideekiko, balioetan oinarritutako hezkuntzarekiko eta sormenarekiko konpromiso soziala lortu nahiz. Proiektu hau garatzen den bitartean ere parte-hartze eta askotarikotasun zabal horri eutsi behar zaio, giza eskubideen eta edozein bazterkuntza eta bortxaren kontrako errebeldia zibikoaren diskurtsoa mantenduz eta bake-giroan aitzinatuz.

Garrantzi handia izango du, orobat, Durango, Eibar, Bilbo eta Euskadiko beste herri batzuk suntsitu zituzten bonbardaketen 75. urteurrenaren ekitaldiak, 2012. Euskadi Bakearen eta Askatasunaren aldeko Kulturen Urtea jarduera-programarekin. Bakearen aldeko konpromisoa are garrantzitsuagoa da gaur egungo Testuinguruan.

Datozen urteotan Euskal Autonomia Erkidegoko kulturaren garapenerako bultzagarriak izango diren ekimen zehatzen artean, Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa abian jartzeak berebiziko garrantzia izango du.

Inolako zalantzarik gabe estrategikoak diren produktu berri hauei aurre egiteko, kulturaren sektorearen iraunkortasunean aurrera eginez jarraituko da datozen urteotan, sektore horren jarduerari laguntzeko bide eta irizpide berriekin. Dagoeneko sartu dira kulturazko edukien industria finantzatzeko eta laguntzeko eredu berriak –irizpide horiek ebaluatu eta sektore bakoitzaren premia berezietara egokitu beharko dira– eta baita Kultura 2.0 laguntza-ildoak, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien laguntzarekin, lehiakortasuna sustatzeko, kanpoko merkatuetan lekua irabazten laguntzeko, prozesuak hobetzeko edo produktua dibertsifikatzeko.

Beste alde batetik, sektorekako politiketan, azkeneko urte hauetan egin diren berrikuntzek sektore bakoitzaren erronka bereziei irtenbideak ematera jotzen dute:

Euskal Autonomia Erkidegoan mailegu bidezko finantzaketa-eredu berriarekin, administrazio publikoaren eta sektore bakoitzeko eragileen arteko harremanetarako formula berri bat abiarazi da; formula hori etengabe aztertu eta ebaluatu beharko da, sistema hobetzeko. Ikus-entzunezkoen sektorea da kulturako sektorerik industrializatuen, lehen ikusian behintzat zuzenean finkatzen laguntzeko baldintzarik hoberenak dituena. Euskal Autonomia Erkidegoan kultura finantzatzeko bide berriak zabal ditzakeen sektorea da orobat. Datozen urteotarako erronka nagusia sektore estrategiko honentzako sostengu-sistema etengabe hobetuz joatea da. Hobetzeko asmo horren barruan, proiektuentzako zuzeneko laguntzaren –horixe da gaur egun sektore honen eta Administrazioaren arteko harreman-formularik hedatuena– eta beste mekanismo batzuen arteko oreka aztertu beharko da; honelako mekanismoak izan daitezke, esate baterako, maileguak ematea edo abalak ematea, sektore honi laguntzeko bideratzen diren baliabideak ugaltzeko balio lezaketenak.

Hobekuntza horiekin batera, euskal zinema, euskaraz egiten dena batez ere, sustatzeari dagozkion erronkak mantentzen dira. Ildo honetan, badirudi Zinema Euskaraz bezalako Programak garatzeak edo sektore publikoaren eta pribatuaren elkarlanean partekatutako ekimen berriak bultzatzeak –Zineuskadi Elkarteak, adibidez–, aukera asko dutela aurrerantzean garatuz joateko.

Eta, azkenik, ezin daiteke ahaztu sektore honetan, baliabide digitalak hartzen ari diren indarraren ondorioz, gertatzen ari den eraldaketa sakona, alde batetik orain arte inoiz ez bezalako eboluzio teknologikoa eta ekonomikoa eragiten ari dena eta kontsumoa ere aldatzen ari dena; bilakaera horren ondorioak izango ditu, hain zuzen, sektore honek etorkizunerako erronka nagusia.

Liburuaren sektoreari dagokionez, kontuan hartu behar da argitalpenen industriak Bartzelonan eta Madrilen dituela ekoizpen-zentro nagusiak, korporazio handiek Espainiako estatuko argitalpen-ekoizpena kontzentratzen dutenak. Errealitate horren aurrean lehiari jardutea gauza erraza ez bada ere, euskal argitalpenen industriak bide luzea du oraindik ere egiteko.

Zentzu honetan, liburuaren sektore hau kultura eduki nabarmena duten laguntzen osagarritzko laguntzak salbuetsita (euskarazko ekoizpenari laguntzeko osagarritzko laguntzak, adibidez, merkatuaren muga estuek eskatzen dituenak) industriarentzako sostengu-politikak behar dituen industria baten moduan hartzea izango litzateke etorkizunera begira aurre egin behar zaion erronketako bat.

Beste alde batetik, argitalpenen industria teknologia digitaletan sartzeak formatu eta negozio-eredu berriak agertzeko bidea ematen du, eta edukien eta formatuen berrikuntzan oinarritutako industria-egitura berriak agertzea ekar dezake horrek. Merkatuan lekua hartzeko eta lehiakortasun berria izateko aukera bikaina da hori. Hain zuzen ere, euskal argitalpenen industria hasia da negozio digitalaren munduan ekimen bateratuak bultzatzen. Ildo horretatik, bada, administrazio publikoen laguntzak bide horretan aurrera egiten laguntzeko formula berriak aztertu beharko dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan antzerkiaren sektorea indartzeko politikak lehendik datorren ildoari jarraitu behar diote, sektore honen jardueraren zati handi bat finantzatzen jarraitzeko, bere balio-kate osoari begiratu. Hala eta guztiz ere, sektorearen premietatik zein sektore honen garapen sendoagoa eta iraunkortasuna lortzeko asmo politikotik datozke etorkizunerako erronkak. Horregatik, bada, sektore honetan oinarritzkoa den jarduera bati eusteko laguntza-ildoak finkatzen diren bitartean, sektorearen garapenean eraginik handiena duten finantzaketa-eredue-tarantz jotzea da erronka nagusia. Helburu horri begira, lanerako bide interesgarri bat erakusten duen lehenengo urrats bat izan da egoitzen programa pilotua, konpainiei egonkortasuna ematen dien eta baliabide eta azpiegitura publikoak eta pribatuak aprobetxatzeko aukera eskaintzen dien heinean.

Modu berean, interesgarria da produkzioentzako laguntza antzokien eskakizunekin koordinatzea eta lotzea, SA-REAK sortutako zirkuituan oinarrituta. Beste alde batetik, sektore hau kulturazko edukien industria gisa hartzeko bidean aurrera jarraitu beharra dago, sektoreak, lehen ikusian behintzat, irabaziak eta enpleguak sortzeko duen balioa areagotuko duten sostengu-bideak ezarriz.

Dantzari dagokionez, gaur egun oso finantzaketa publikoaren mende dagoen sektore hori beregainagoa izan dadin, bere produkzioak hobeto ustiatzea baino ezin izan daiteke irtenbidea. Gaur egungo sorkuntzaren kalitatea kontuan hartuta, euskal sortzaileen lanak beste lurralde batzuetara esportatzea lortzea da erronka nagusia, Espainiako estatura edo beste herrialde batzuetara. Alde horretatik, nabarmendu beharra dago, beste arte-adierazpen batzuk ez bezala, dantza ez dagoela hizkuntzen mugek mugatuta, eta hala aukera gehiago duela merkatu zabalagoetara zabaltzeko.

Baina merkatua zabaltzea lortzeko, beste urrats bat egin behar da sektore hau sendotu eta egituratzeko. Merkatua zabaltzeko ezinbesteko baldintza da, adibidez, konpainien egiturak nazioartean zabaltzeko aukera gehiago

eskaintzea, eta horrexetatik, konpainia horien kudeaketa profesionalago bihurtzeko eta neurri handiagoa lortzeko bidean egin behar dira urratsak.

Musikak, aldiz, kultura edukien kontsumoaren paradigma berrietara egokitzea du erronka nagusia. Egia da kultura edukien kontsumo guztietan gertatu direla aldaketak, baina musikaren kasua bereziki ohargarria da, ohituren aldaketa horiek eragina izan duten lehenengo alorra izan delako, besteren artean.

Musika banatzeko eta eskuratzeko eredu berriak erabat aldatu du musikaren merkatu globala. Errealitate berri horrek arazoak sortu dizkio Euskal Autonomia Erkidegoan lehendik ere aski txikia den diskografiako industriari, eta orain musikaren kudeaketa integralera zabaldu nahi du bere jarduera eremua. Aldakuntza hauetatik onura gehien atera duena zuzeneko musika izan da.

Beste alde batetik, Internetek eta gizarte-sareek publikoarekiko komunikazio-bideak aldatu dituzte, eta aukera berriak sortu dituzte musika-aretoen, zirkuituen eta bestelako musika-eskaintzen publizitatea egiteko.

Sektore honek aldaketa horietara egokitze gaitasun handiagoa eta erantzuteko arintasun biziagoa lortu behar du. Helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen artean musika sustatzen jarraitzea duten erantzun horiek, hori baita euskal ekoizpenaren berezko merkatua, sektore honen eta administrazio publikoen arteko elkarlaneko marko batean behar dira bilatu, eta dagoeneko urratsak egin dira zentzu horretan.

Ikusmenezko arteen sektorearen erronkak sektore horren ezaugarri nagusian –ekimenen heterogeneotasuna eta barreiamendua– dute jatorria. Sektore hau oso aberatsa da sormenean eta ekimen publiko eta pribatutan, baina eragileak elkarrekin lotzeko eta eragile bakoitzaren ahalmen guztiak garatzeko gaitasuna izango duen sistema bakar baten moduan funtzionatzeko gai izatea lortu behar du oraindik. Ildo honetatik, beraz, sektore honi laguntzeko politika publikoek administrazioen arteko koordinazio hobea lortu behar dute eta eskala desberdinetan (lurraldeko ekimenezko zentro handiak, ekoizpen-zentroak eta galeriak, formazio-guneak eta sorkuntza-lekuak, eta abar) diharduten eragileen arteko erlazioa hobetu.

Sektore honen heterogeneotasuna aberastasuna da; ekimenen, proiektuen, estiloen eta diziplinen ugaritasunak ez du barreiamendua ekarri behar, aberastasun horren gaitasun guztia gauzatzeko baldintzarik hoberenak ekarriko dituen sistema egituratu eta kohesionatu bat baizik.

Azkenik, sektore hauek guztiak duten beste erronka bat nazioartean duten proiektzioa hobetzea da. Alde horretatik, Etxepare Institutuaren jarduera bultzatzen eta zabaltzen ari da; haren eginkizuna izango da, hain zuzen ere, nazioarteko sustapena egiteko estrategia bideratzea eta dagoeneko haren esku jarriak daude orain arte sektore desberdinetako eremuetatik kudeatzen ziren zenbait programa eta laguntza, hala estrategia transbertsalago bat lortzeko.